

gaiak

ahaztuak 1936-1977

bai&by

GEU

2,40 €

2006ko urria

166

musika

gasteiz big band

arteak

iratxe jaio

euskara

cegasa

jesus obrero

historia

kontrasta, arana & elizmendi

bidaia

iceland

kepa junkera. hiri



CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK

Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ
Bezeroarentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com

SUMARIOA 166



8



12

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992) | Geu. aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | **tfnoa. eta faxa:** 945 22 21 53 | **e-mail:** geugasteiz@grn.es | **www.geugasteiz.com** | **zuzendaria:** estibx breñas glz. de zarate | **aldizkari batzordea:** josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estibx breñas eta david alvez | **kazetariak:** josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | **azaleko argazkia:** kap produkzioak | **argazkiak:** edorta sanz | **bestelako irudiak-bilaketa:** estibx breñas glz. de zarate, david alvez | **testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estibx breñas glz. de zarate | **itzulpenak:** edurne begiristain, estibx breñas, aztiri | **maketa:** dalvez | **umorea:** inigo sarasola | **kolaboratzaileak ale honetan:** kike fdz. de pinedo, rikardo arregi, txabi arnal, erlantz urtasun, cristina fernandez, iratxe esnaola eta gamarrako ostalaritza eskola. | **publizitatea:** geu aldizkaria | **sustapen-harpidetza saila:** geu aldizkaria | **harpidetza-publizitate laguntzailea:** edurne begiristain | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | **lg:** VI-582/92 | **issn:** 1133-0988 | **Frankeo Itundua** 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:

zeregin 4
urriko agenda

iritzia 7
euskararen lurraldea interneteko mapan

geupertsonaia 8
kepa junkera: hiri

euskaltasunean. gasteiz 12
tere loinaz

kaletik / idazleenzutabea 13
eskailera mekanikoak / rikardo arregi

geugaia 15
'arabako ahaztuak 1936-1977' elkarte

batbitan 18
bai&by

artetxokoa I 20
iratxe jaio

artetxokoa II 22
gasteiz big band

lauhitzetan 25
18/98+taldearen kontzertua / beste

batbitan 26
abelino barriola euskal herriko saria
gasteizko jesus obrero ikastetxearentzat

proposamenak / haur&gazte literatura 28
cd-a&liburua&zinea

umorea 29
inigo sarasola

batbitan 30
cegasa enpresa-taldea: euskara plana

bidaia / errezeta 32
iceland / orburu entsalada

historia&euskara 33
kike fdz de pinedo

arababixotzian / historiazutabea 34
cristina fernandez / erlantz urtasun



15



18



20



22



30

vitoria-gasteizko nazioarteko XXXI. antzerki jaialdia

irailak 29 - azaroak 25
sarrerak: principal antzokiko leihatilan / telefonoz (945-161045)
www.vitoria-gasteiz.org

■ ZETA

hika teatroa
alessandro baricco antzerkigile eta nobelagile ezagunaren nobelan oinarritua
urriak 5, principal antzokian, 20:30

■ FAMILI ANTZERKIA: TXANOGORRITXO ETA MARRUBI ZAPOREKO GAZTAINAK

glu glu producciones
urriak 8, principal antzokian, 18:00
(5 urtetik aurrera)

■ FAMILI ANTZERKIA: ROBIN ETA HOOD

gorakada
urriak 22, principal antzokian, 18:00
(5 urtetik aurrera)



■ WILLIAM SHAKESPEAREREN 'THE TEMPEST' (EKAITZA)

zecora ura theatre (britainia handia)
ezaugarri berezia: lau hizkuntza desberdinen fusioa da
(gaztelania, portugesa, euskara eta ingelesa)
azaroak 9, jesus ibañez de matauko antzokian, 20:30



■ EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

>gasteizko udalaren euskara biziberritzeko plan nagusia (ebpn). berritasunak: diru-laguntza lerro berriak gurasoentzat eta haurrekin lan egiten duten begiraleentzat
oinarriak: alhao-n (botha) / www.vitoria-gasteiz.org

■ EMAKUMEZKO & GIZONEZKOEN ARTEKO BERTINTASUNERAKO JARDUERAK

>etxeko ardurak emakumezko eta gizonetako artean trukatzeko
gasteizko iparralde g.e., 06-10-18 / 07-04-04, 19:00-21:00, asteazkeneko

■ IKASTAROA: HIZKUNTZA PLANGINTZA (HIZNET)

>internet bidezko graduondokoa, 2006ko urritik 2007ko ekainera bitartera
asmoz fundazioaren eskutik. www.asmoz.org
http://hiznet.asmoz.org

■ IKASTAROA: SOFTWARE LIBREA ON-LINE

>matrikula: urriak 10 arte. iraupena: 06 urria - 07 ekaina.
asmoz fundazioaren eskutik. www.asmoz.org
http://linux.asmoz.org / 943212369 / linux@asmoz.org

■ JULENE AZPEITIA 19. IPUIN LEHIAKETA

>epea: urriak 21
informazioa: zumaiaiko udala

■ TAILERRA: BIDAIAIRIEN ESKUBIDEAK

>kontsumo gelak-gasteiz (adriano VI.aren kalea, 20-1.a)
urriak 30, 16:00-18:00
izena-ematea (12 plaza): 945016600
a-kontsumo.gelak@ej-gv.es
eskaintza zabala dute: tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak... informazioa zaitzez

■ TXOTXONGILOAK: BALEAK SALBA DITZAGUN

bihar txotxongilo taldea
>larunbatetan familia osoa programa. urriak 21, 18:30ean, jardina de falerina kafetegian (montehermoso kulturunea). Sarrerak: euro 1, aurreko larunbatetik salgai

■ ANTZERKIA: BOB. NOR DA BOB?

>ostegunak zuzenean programa. azaroak 2, 20:00etan, jardina de falerina kafetegian (montehermoso kulturunea). doan

■ BISITA GIDATUAK MONTEHERMOSO KULTURUNEAN

>eraikina & erakusketak
aldeaz aurretik hitzartuz 945161830 tlf zk.n

artium-eko 2006-07 eskolarako programak: ikasten ikasi

*zein hizkuntzatan hitz egin nahi duzu artiumeko bisitaldian?
artium-eko eskolarako programa guztiak 4 hizkuntzatan egin daitezke, ikasleak ikasten ari diren hizkuntza erabili ahal izateko: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa

■ **ZURE NEURRIRA** (gasteizko ikasleei eskainia): prestakuntza saioa ikastetxean (ordubete) / artium bisitatzeko (2 ordu) / jarraipenerako bisitaldia ikastetxean (ordubete)

■ **PARTE HARTZEKO BISITALDI GIDATUAK** (ordubete)

■ **BISITALDI-LANTEGIAK** (2 ordu)

■ **LOTURAK** (3 ordu)

■ **PROGRAMA BERRIAK:**

■ **LOTURAK +**

■ **BIL EZAZU INFORMAZIOA!** hurbil zaitzez eta araka ezazu liburutegia (2 ordu)

✓ artearen eta ikus-entzunezkoen inguruko hezkuntza dlh-ko 1. mailatik 6. mailarainoko ikasleentzat

■ **IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA SAIOAK**

✓ on-line baliabideak: www.artium.org/educacion.html

www.artium.org / 945209010 / educacion@artium.org



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu elkarte**■ IRAKURLE KLUBA:**

GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

>irakurle klubaren aurkezpen ekitaldia
urriak 11, asteazkena, hikaatenean, 20:00etan

xabier olarra euskaratutako raymond quenau idazlearen 'estilo ariketak' liburuaren aurkezpen berezia egingo dute aktore ezagunek. mireia gabilondo, patxo telleria eta carlos zabala arduratuko dira liburu osatzen duten 99 testuetatik 12ren irakurketa antzetzua egiteaz. istorio bakarra kontatzeko 99 modu ezberdin.

>06-07 ikasturteko irakurketak:

- ✓ urriaren 26a, osteguna
uxue apaolaza, umeek gezurrak esaten dutenetik, erein 2005
- ✓ azaroaren 30a, osteguna
paul auster, brooklyn-go erokeriak, alberdania 2006
- ✓ abenduaren 21a, osteguna
juan luis zabala, galdu arte, susa 1996
- ✓ urtarrilaren 25a, osteguna
irene nemirovsky, dantzaldia, txalaparta 2006
- ✓ otsailaren 22a, osteguna
pruden gartzia, lazarraga, ernazimentua euskaraz, pamiela 2005
- ✓ martxoaren 29a, osteguna
robert walser, jacob von gunten, erein 2005
- ✓ apirilaren 26a, osteguna
koldo izagirre, non dago basques' harbour, susa 1997
- ✓ maiatzaren 24a, osteguna
truman capote, odol hotzean, igela 1993
- ✓ ekainaren 28a, osteguna
jose luis otamendi, euri kontuak, susa 1999

■ KULTUR ERROTA:

>iker lpz de vicuñaren diaporama:
'matauko-katmandu' bizikletaz
bizikletaz egindako urtebeteko bidaia
kontatuko du mataukoar gazteak
urriak 31, astearte, 20:30ean, parral
tabernan
ikus. geu aldizkaria, 2006ko ekaineko
alea (162. zk.)

**■ GEUREKIN MENDIRA:**

>laminoriako portutik opakuara
santa elena (1110m), atxuri-larrede (1102m), arrigorrista (1143m)
urriaren 15ean
irteera: 09:00etan, lovaina plazan
arduradunak: joseba (945 200973) eta maite (945 282316)

> bestelakoak:

■ **GASTEIZKO ESZENA ARTE TAILERRA (POR-POL ANTZERKIA):** 2006-2007 antzerki ikas-taroak (aktore formakuntza; ume, gazte eta helduak). 945284542 / 945285645

■ **MAURO ENTRIALGO: 'TROCITOS DE MI VIDA':** bideologiak programa (gasteizko montehermoso kulturunea, irailak 26-azaroak 28), urriak 17, 19:30ean. sarrera libre. www.mauroentrialgo.com



Mauro Entrialgo

■ GASTEIZKO BIDEO-KLIPAK:

juanma bajo ulloa, txitxo amili, joseba vazquez. bideologiak programa (gasteizko montehermoso kulturunea, irailak 26-azaroak 28), azaroak 7, 19:30ean. sarrera libre

**■ HEZITZAILEENTZAKO SEXU HEZIKETA:**

hezitzaile eta komunitate eragileei zuzendua. matrikula epea: urriaren 20a baino lehen. informazioa: sexagerian sexologia elkarte (945265896 / emai-ze@emaize.com).

**■ HELL DORADO. 5 URTE**

>urriak 6: the drones + the fretangas
>urriak 20: shuga wuga + loren
>urriak 21: harlan t. bobo + the montesas + los twang manrvls
>urriak 28: sex museum + texas terry & stiff ones

www.helldorado.net



GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa



Zurezko Teilatuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Golain Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@euskalnet.net


BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net



eusko
alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



Gazte
Abertzaleak

Euskeraz Araban BAI

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006


Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

HEGOALDE
Euskalategia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

[iratxe esnaola arribillaga] (erabili.com / 2006-09-07)

ELUSKARAREN LURRALDEA INTERNETEKO MAPAN



.eus
domeinuaren
sorrerak euskara
eta euskal
kultura
indartuko ditu,
eta euskarazko
edukiak
sustatuko

Sare sozialen garaian bizi gara. Errealak edo birtualak, baina sare sozialak dira. Mundua biltzen eta lotzen duen sare handiaren barruan sortu sare txikiak: komunitateak.

Internetek munduko milioika sistema informatiko konektatzen ditu. Paisaia birtual horretan ez da denbora dimentsiorik existitzen, ezta distantzia mugarik ere. Internetek pertsonak lotzen ditu. Eta gogoetak, eta kezak. Are gehiago: Internet mundura begira jartzen gaituen leihoa da egun. Hortaz, mundua ere guri so dago, uneoro eta betiko: inork, inola eta inoiz itxiko ez duen leihoa baita Internet. Horrexegatik, paisaia global eta kolektibo horren parte izan eta bertan parte hartzera behartuak gaude, munduak gu ikustea nahi badugu.

Internetek medioak demokratizatu dituela ere esaten da, blogen eta wikien hedapenarekin, batez ere. Internetek komunitateak sortzeko gaitasuna lortu du: nortasun eta izaera propioko komunitateak. Esparru komunikatibo birtualean ere nortasuna eta identitateak garrantzitsuak eta halabeharrezkoak baitira, bizitzako aspektu guztietan bezalaxe. Gauden lekuan gaudela identifika gaitzakete. Identifikazio indibiduala bermatua dugu: dela nortasun agiria, dela autoko matrikula, dela hoteleko gelako edo arrandegiko ilarako zenbakia. Beti dago besteengandik indibidualki ezberdintzen gaituen daturen bat. Interneteko leihora agertzen garen bakoitzean ere, konturatu edo ez, identifikazio zenbaki bat dugu gure identitatearen lekuko, sare handian indibidualki ezberdintzen gaituena, pertsona gisa. Eta kolektiboki? Zer gertatzen da identitate kolektiboarekin? Nola ezagutarazi munduaren aurrean euskaldun gisa? Eta euskal herritar gisa?

Domeinuak webguneak kolektibo edo komunitateetan sailkatzeko erabiltzen dira. ICANNek (Izenak eta Zenbakiak Banatzeko Nazioarteko Korporazioa, www.icann.org) kudeatzen ditu. Eta onartzen, eta baztertzen. Interneten jaiotzarekin gutxi batzuk sortu ziren arren, egun mota asko eta askotako domeinuak ditugu. Ezagunenak .com, .org eta .net izan daitezke. Baina badaude gehiago. Gehientsuenak, hasieran, erakunde edo jarduera zehatzetarako (.com, esaterako, enpresa eta merkataritza elektronikorako sortu zen) izendatuak izan ziren, baina gerora erabilera libreko domeinu bihurtu dira. Badaude webguneak beraien jatorrizko herrialdearekin lotzeko sortutako domeinuak ere. Estatu edo nazio kodeak dira, Interneteko leihorako (.fr frantziar Estatuan, .es espainiar Estatuan, .it Italian... bi hizkikoak guztiak). Eta zer gara gu, nazio bat ez bagara?

Mapa politiko ofizialetan zatituta eta ezkutuan ageri den eta ICANNen baldintzetan sartzen ez den nazio bat

da gurea. ICCANek ez gaitu bere prozeduretan kokatzen, ez nazio gisa bederen. Horixe gertatu zitzaion katalanei. Baina ez zuten etsi. Nazio izaerari uko egin gabe, katalan hizkuntza eta kultura aitor-tzea lortu zuten, .cat domeinuaren onarpenarekin (www.puncat.org). Egun, Interneteko leihotik, 15.000 webgune baino gehiago ikus ditzakegu .cat domeinupean. Eta paisaia zirrarakarri bezain indartsu hau etengabe hedatzen ari da, hektareaz hektarea, eta orubez orube. Munduak hizkuntz komunitate bat ikusten du .cat-en: nortasun linguistikoa eta kulturala duen komunitate bat.

Interneteko leihoak ez du mapa politiko ofizialik ezagutzen. Baina bai mapa linguistikoa. Eta horrexegatik guk ere paisaiaren gure zatitxo landu behar dugu: sortu, eraiki, zabaldu, erakutsi, hedatu. .eus da gure Interneteko mapa linguistikoa, gure leiho propioa. Errekonoizimendua emango diguna. Euskarak eta euskaldunok ezinbestekoa duguna. Euskal literaturatik ikastola eta komunikabideetara egin genuen jauzi, unean uneko beharren arabera.

Gure egungo erronka paraleloa eraikuntza teknologiko nazionala edo nazio eraikuntza teknologikoa da, munduari nor garen esatea: Interneten euskarazko edukiak sortuz, baina eta hizkuntz komunitate propio bat garatuz. Euskaraz irakurri ezin gaitzaketenek existitzen garena jakin dezaten, mapa politiko ofizialek gu ezkutuan gordetzen gaituzten arren. Gustatu edo ez, egun Interneteko paisaiaren zati ez diren komunitate, herri eta nazioak, beharbada paisaia errearen argazki besterik ez dira izango etorkizunean. Internetek asko lagundu gaitzake, baina min ere egin diezaguke, aurrea hartzen ez badiogu. Eta kasu honetan ere, babesbiderik eraginkorrena aurrerasoa eraikitzailea da. Ezin dugu zain egon. Nahitaezko eremua da guretzat, berandu baino lehen geureganatu behar duguna, berak gu jan baino lehen. Eta hori guk, euskaldunok, landu behar dugu. Milioi bat euskal hiztun behar omen ditugu horretarako. Eta 45.000 dolar. Eta domeinu berria kudeatuko duen erakunde bat. Lana sobera dugu. Denbora aldeko. Baina euskaldunok badakigu zer den auzolana, inork badaki.

Eta erronka berria dugu aurrean. .eus domeinuaren sorrerak euskara eta euskal kultura indartuko ditu, eta euskarazko edukiak sustatuko. Euskarak eta euskaldunok, Interneteko leihoan gure paisaia birtuala behar dugu: gure geografia emozionala, propioa. Ezinbestekoa dugu. Lehenbailehen.

(iratxe esnaola arribillaga informatikan ingeniaria da / estreinakoz, gara egunkarian argitaratu zen artikulua, 2006-08-12an)



“Kantu bakoitza zabaltzen den ate bat edo bidean suertatu zaidan istorio bat da”

Bilboko Errekaldeko trikitilariak lan berria kaleratu du Elkar diskoetxearen zigilupean. HIRI izenburua eman dio eta hiriaren kontzeptuarekin jolastera gonbidatzen gaitu oraingoan Kepa Junkerak, eta horretarako munduko hainbat hiritan kokatutako 15 abesti luzatzen dizkigu, bildutako zenbait musikariren partaidetza eta bizipenak partekatuz.

[maite lekue]

[arg.: kap. produkzioak]

Zein berritasun aurki ditzakegu Hiri izenburupean kaleratu duzun diskoan?

Lan berri bat da, zuzenean egindako diskoaren ondoren eta paraleloan egindako Athletic Bihotzez (2004) ostean sortutako lana. Bi urte hauetan konposatzen ibili naiz, lehenago egindako abestiak biltzen eta moldatzen ere aritu gara, egitura bat ematen guztiei, eta azkenean Hiri disko hau atera arte. Hamabost abestik osatzen dute lana eta hiri desberdinetan inspiratu naiz, Aitor Ortiz argazkilariaren argazkietatik abiatuta betiere. Asko landutako lana da, xehetasunean zaindutakoa eta txoko desberdinetako lagunak gonbidatu ahal izan ditugu diskoan parte hartzera, bai Brasildik, Europa aldetik, Azerbaijanetik... Honekin guztiarekin kolore biziko disko interesgarria sortu dugu.

Munduko zein Hiritan murgilduko gara musikaren ildotik?

15 leku aukeratu ditut, beste batzuk hauta nitzakeen bezala. Hauetariko bakoitza zabaltzen den ate bat edo

bidean suertatu zaidan istorio bat da. Batzuek familia arteko loturak, sentimentalak, musikari bat ezagutzea, hunkitutako jaialdi bat edo bertako kulturaren esanahia biltzen dute. Disko honetan, esaterako, Reno (Nevada), Buenos Aires (Argentina), Ataur (Gipuzkoa), Nagoya (Japonia), Kiruna (Laponia), Napoli (Italia), Agadir (Maroko), Yaiza (Lanzarote) edo Iurreta (Bizkaia) hiriak agertzen dira. Leku bakoitzak bere istorioa du, eta ondo datorkit hiri bat denarekin konparatzeko, nire musika denarekin, eta jende askok parte hartzen dugun tokiarekin, hiria alegia.

Kolaboratzaile eta kide asko dituzu lagun disko berrian. Zeintzuk dira oraingoan aurkeztuko dizkiguzun soinuak eta bidaietan barna ezagututako musikariren eraginak?

Gauza interesgarriak daude nire ustetan. Aygunek abesten du adibidez, Azerbaijanango Baku herrialdeko abeslariak, eta Gaztelatik datorren Eliseo Parraren parte-hartzearekin alderatu daiteke, eta Napoliko Enzo Avitabilekin. Azken finean, kontraste handiak aurki daitezke, gonbidatutako musikari bakoitza mundu bat delako

KEPA JUNKERA

hiri



eta bakoitzarekin lan oso bat egin nezakeelako. Marcos Suzano, perkusiojolea, edo eta Rio Janeiroko Carlos Mata xirulajolearekin, adibidez. Deskubritzeko xehetasun ugari eta entzun eta sentitzeko doinuak dira. Disko honetan esperientziaren laguntza izan dut, helduagoa sentitu naiz eta azken emaitza bilatzen ibili naiz.

Elkar diskoetxearekin kaleratu duzu oraingoan Hiri hamar urteren ondoren. Nolakoa izan da berriz ere etxean grabatzearena? Gustura sentitu al zara?

Nik bueltatu eta garai berri bat hasi nahi nuen. Gainera Elkar ere gorakada garaian dago, bulkada eta indar berriekin eta baita denborarekin bildutako esperientziaren laguntzaz ere, orduan, momentuan topo egin dugula uste dut. Egia esan, oso pozik nago hilabete hauen buruan egindako lanarengatik, aurkezpenengatik eta emandako babesagatik. Denon artean gure musikari ateak zabaltzea espero dugu.

Nola joan da grabazioa? Estudioko lana nolakoa izan da?

Ondo. Lagun batzuen artean dugun estudio batean izan gara grabatzen eta,

horrexegatik, denbora izan dugu lana lasai gauzatzen joateko. Horrela, musikariak agertzen joan direnean, beste esperientzia batzuetatik ezagutzen ditudanak, lana samur eta arina suertatu da. Elkar-en estudioetan ere gauza garrantzitsuak egin dira eta oso ondo gainera. Azken finean, nik uste esperientzia oso garrantzitsua izan dela, musikariek nola funtzionatzen duten ikasten zoazelako, nola sentituko zaren jakiteko. Ni oso kontent nago emaitzarekin, nola antolatu genuen dena eta nola hurbildu garen nahi genuenera.

Gonbidatu asko diskoan parte hartzen. Zein fusio berri aurkezten dituzu Hiri diskoan?

Gauza erakargarriak daude, doinu trinko bat landu nahi izan dut, baina gero badira abesti batzuk non instrumentu bat agertu eta ondoren joan egiten den. Askatasun handia izan dut abestiak sotzerako orduan, egiturak egiterako orduan, eta melodia landuak atera dira. Bestetik, perkusioaren aspektua, adibidez, oso garrantzitsua da; Napoliko usadio diren Bottariak agertzen dira gure txalaparta doinuekin uztartuak,

eta baita beste gauza asko ere. Ahotsak ere hor ditugu, Bulgariako ahotsak, edo Galiziatik etorritako Mercedes Peon, Eliseo Parra gaztelarra, edo Azerbaijango Aygun. Xose Manuel Budiño galiziararren xirula doinuak ere badira.

Diskotik haratago proiektu berri baten bidea egin nahi duzue eta bideoa eta musika bateratzen dituen lan bat daukazue esku artean. Zertan datza proiektu hori?

Euskal Herriko zenbait errealizadorekin bideo batzuk grabatzen ari gara abesti bakoitzaz, baina batez ere istorio bat kontatzen saiatu gara, hiri kontzeptuarekin jolasten eta kalera ateratzen. Agian urte amaierarako telebista saio batean ikusi ahal izango dira eta datorren urterako DVD bat atera daiteke. Baina lehenik eta behin diskoaren formatua daukagu eta ondoren etorriko da bestea. Aipatutako bideo batzuk grabatuak ditugu jada, esate baterako, Mikel Clemente, Aitzol Aramaio, Josu Venero eta Borja Crespoekin lan egin dugu; Errekalden, nire auzoan, Bilboko Gran Vian, Gernikako Azokan eta San Ferminetan grabatu ditugu. Orain datorrena New



www.kepajunkera.com

kepa junkeraren diskografia zabala da: 14 album, 8 single, hainbat ekoizpen eta kolaborazio anitz. hauek ditugu kepa junkerak orain arte egindako disko nagusienak:

- 2006 hiri kepa junkera (elkar)
- 2004 athletic bihotzez kepa junkera (balea)
- 2004 kalejira al-buk kepa junkera (balea)
- 2003 K kepa junkera (emi)
- 2001 maren kepa junkera (emi)
- 2000 tricky kepa junkera (kaira productions)
- 1998 bilbao 00:00h kepa junkera (resistencia)
- 1996 leonen orroak kepa junkera & ibon koteron (elkar)
- 1995 lau eskutara kepa junkera & julio pereira (elkar)
- 1993 trans-europe diatonique kepa junkera, john kirkpatrick & riccardo tessi (silex)
- 1991 trikitixa zoom kepa junkera (nuba records)
- 1990 triki up kepa junkera (elkar)
- 1987 infernuko auspoa kepa junkera (elkar)

Yorken, Buenos Airesen, Txileko Santiagon eta Montevideon grabatzea da, bertan emango ditugun kontzertu batzuk probestuz. Azkenean proiektu hau diskoarekin batera ateratzen joango gara eta oso aberasgarria izango delakoan gaude, musika hau ikusteko aukera eskaintzea hain zuzen.

Hiri diskoaren aurkezpena eszenatoki ezin aproposagoan egin zen, etxean eta munduko musikaren ateak zabaltzen dituen gunean, Getxo Folk Jaialdian hain zuzen. Nolakoa izan zen Hiri diskoaren agerraldia?

Oso ondo atera zen. Egia esan, zure lana etxean aurkeztea, zure lagunaren artean eta asko estimatzen duzun jaialdian zorte bat da. Gainera guk asko preziatzen dugu Getxo Folk eta Getxoko Kultur aretoa, zaletuoi musikak deskubritzeko aukera ematen digulako betiere. Disko honen kaleratzeak eta Jaialdiak bat egitean proposamena luzatu genien eta berehala baiezkota eman ziguten, bai eta bertan parte hartzeko gonbidatuak ekartzeko orduan momentu orotan babesa eskaini ere. Aurkezpena arrakastatsua izan zen, gu

kontzertuaz asko gozatu ginen eta publikoak abesti berriak deskubritu zituen zuzenean eta gonbidatu piloarekin, hala nola, Bulgariako ahotsak, Alos Quartet korda laukotea, Enzo Avitabile eta Bottariak, Tactequete talde kataluniarra eta abar... Oso ondo egon zen.

Zein sentsazio jaso zenituzten publikoaren partetik?

Oso baikorrak, egun hauetan batez ere, ezagunago den jendearen partetik. Lana gustatu zaiela esaten digute eta gainera harritu egin gaituzte garapen bat, aurrerapauso bat sumatzen dutelako. Agian goiz xamar da esateko, baina ni pozik nago jendeak izan duen erantzunagatik.

Hiri diskoa kaleratu eta aurkezpena egin ostean zabaltze lanari ekin beharko diozue orain. Zein da prestatuta daukazuen kontzertuen bira?

Gurea etengabeko lana da. Hedabideei diskoa aurkeztu behar diegu oraindik, Bartzelonan, Madrilan eta Parisen aurkezpena egin behar dugu eta aldi berean, kontzertuak ematen goaz hiri desberdinetan. Pirinioetan, Bartzelona aldean, Sevillan... baina baita etxetik

gertu ere, Arrasate, Mutiloabeitin, ondoren Erroman eta Napolin izateko, Isturitzen eta Donostian, Nueva Yorken, Donibane Lohitzunen, Manresan, Montevideo, Buenos Aires eta Cordoban... handik hona eta hemendik hara. Une biziak izango direla uste dut.

Kepa Junkeraren musika zuzenean berezia izan ohi da. Zer eskainiko diozue Hiri diskoaren aurkezpenaren baitan zuengana hurbiltzen denari?

Zuzenekoa beti da berezia. Gu kontzertu bakoitza desberdina izan dadin saiatzeko gara beti, bat-batekoari garrantzia ematen diogulako, momentuari, eta nahiz eta Hiri erreperitorio nagusia izan gure kantu zaharrak ere jotzen ditugu. Horrexegatik zuzenekoa emanaldi berezia da. Diskoa hor dago, dokumentu bat da azken finean, baina zuzenekoa ezberdina da, jendea, lekua, soinua aldatzen delako, eta non zauden arabera gauza bat edo beste aurki dezakezu. Nik uste dut datorkiguna ondo joango dela azken urte hauetako bidea jarraitzen badugu. Gozatzerako gonbidatzen zaituztet, horretan datza, ezta?●

[maite lekue / saioa fdz. de arangiz]

ESKAILERA MEKANIKOAK

Gasteizko Alde Zaharra etengabeko aldaketa garaia bizitzen ari da. PERIaren mamua, Gaztetxea botatzeko mehatxua eta azkenekoa, aldapa mekanikoak ezartzearena. Azken hilabeteetan kolore guztietako iritziak entzun ahal izan dira, batetik, alde daudenak eta bestetik, kaleetara burrunban atera direnen desadostasuna. Iritzi hauek jasotzeko asmoz kalera atera gara beste behin.

- Zer iruditzen zaizu eskailera mekanikoen afera? Erabilgarriak direla uste al duzu?
- Auzokoei zuzendutako zerbitzua ala turismoari bideratutakoa?



Iker Durana, langilea

- Txarto, Alde Zaharraren itxura aldatzen dutelako eta praktikotasun gutxi dutelako. Nire ustez, beste bide batzuk ere badaude berez konpondu nahi den arazoari irtenbide bat emateko. Hortaz, nire ustetan ez dira batere erabilgarriak.
- Alkateak ezarri nahi duen turismoari bideratuta dagoela esango nuke.

Tito Gonzalez Urrutia, langilea

- Gai honetan alderdikeria asko dago. Dena den, nik uste erabilgarriak ez direla. Behin eginda erabiliko direla uste dut, baina ez dut beharrezkoa ikusten Alde Zaharra era horretan suntsitzea. Ez dira praktikoa izango.
- Zalantzarik gabe interes politikoari jarraitzen diote.



Ruth Larretxi, kazetaria

- Txarto iruditzen zait. Txarto erabiliko den diru publikoa dela uste dut, ez dagoelako auzoko jendea zuzendua, turismoari baizik. Gainera, ez dut uste leku aproposena denik horrelako obra egiteko, Alde Zaharra merkatal gune bihurtu nahi dutelako. Bestetik, erabilgarriak ez direla uste dut elbarriek ezin dituztelako erabili eta, azken finean, beraiek dira batez ere leku horretara joateko zailtasunak izan ditzaketenak.
- Turistentzat eginak dira erabat. Hala ere, turistentzat izanik beste erakargarri turistiko batean pentsa zezaketen.

IDAZLEENZUTABEA

ARKEOLOGIA

[rikardo arregi diaz de heredia]



Amaren etxean nago bazkaltzen eta azken berriak kontatu dizkit betiko legez. Haietarik batek, askotan errepikaturik entzun dudana arren, harritzen nau: haren familiak Iruñan duen lursail bat desjabetuko du Arabako

Aldundiak indusketa arkeologikoekin jarraitzeko, familiak Iruñan duen azken lursaila. Azkena izatearenak harritu nau; desjabetzearenak ez, askotan gertatu baitzaio amaren familiari Iruñan. Txikitan han jolasten genuen haurrok, eta nagusiek altxorren bat topatuko genuela esaten ziguten irribarretsu. Ez genuen inoiz ezer topatu, jakina. Txikitan harro nengoen erromatarren zera horiek nire bizitzatik gertu sentitu eta ikusten nituelako (erromatarren filmak gustuko nituen, zer esanik ez) eta Arkeologia Museora joatea atsegin nuen bururik gabeko estatua hura miresteko. Han aspaldian bizi izan zen jendearekin loturaren bat nuela pentsatzen nuen, amets bat besterik ez agian.

Geroago euskal esentzia garbien defendatzaileek lotsatu zuten nire erromazetasuna, badakizue: erromatarrek inperialista gaiztoak ziren eta euskaldunak jende zintzo zapaldua; euskal lur benetakoetan erromatarrek ez zituzten oinak jarri, Arabako lur susmagarrietan ez bezala. Kontu zahar horiek. Bitartean beste zoro batzuek gure latinizazioa goresten zuten.

Orain modan jarri da Iruña, eta Iruña-Veleia esaten zaio. Orain guztiek jarri dituzte begiak han. Orain guztiak daude harro. Eta ondo dago hori. Eraikitako mitologiak eta interpretazio historiko bitxiak desegiten dira lur azpian gorderik zegoena argitara atera denean. Eta ondo dago hori. Sasihistorialariek, dena den, prest izango dituzte dagoeneko ipuin berriak inozoen belarriak ezititzeko. Bitartean arkeologoez, eta benetako zientzialariek, betiko lan isil eta zikinarekin segituko dute. Egunkariaren batean irakurri dut baliabide gutxiarekin ari direla lanean. Txikitan arkeologoa izan nahi nuen handitzean. Amak gogoratu dit. ●



Ensueños dendako jabea.

TERE LOINAZ:

“Nire bizitzaren arlo guztietan normalitatea nahi dut, eta ez da gutxi”

Tere Loinaz Azpeitian jaioa da, ezkonduarik dago, eta hiru alaba dauzka. Orain dela 20 urte Gasteizera etorri zen lana zela-eta; hasieran 'Muebles Loinaz'-en egon zen, eta duela sei urte 'Ensueños' denda eramaten du.

Urteotan konturatu da gero eta gehiago entzuten dela euskaraz gure kaleetan, hala ere, ez du uste gaur egun Gasteizen euskaraz bizi daitekeenik. Patxadaz hartu gintuen bere dendan, Ama Vedruna kalean, koltxoi eta edredoi artean...

[david alvez]

[arg.: edorta sanz]

Duzun biziorik handiena? Uste dut ez dudala, denbora librean gehien gustatzen zaidana da irakurri edo zinemara joatea.

Bertuterik? Pertsona malgua naizela.

Akatsik? Nahiko burugogorra naiz, onerako eta askotan txarrerako ere.

Zure gorputzaren atalik politena?

Eskuak.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Normalitatea... arlo guztietan; eta hori ez da gutxi.

Badago zerbait zure onetik ateratzen zaituena? Intolerantziak batez ere.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk? Orain dela gutxi eta zuri esker,... lotsa ematen dit esateak; alabek ezagutzen zuten.

Inoiz egin al duzu publizitatea euskaraz? Orain dela gutxi hasi naiz. Aspaldian neukan familia atzean esanez.

Eta uste al duzu horrek eragina izango duela? Nik uste baietz. Egun euskaldun

gehiago ikusten ditut hemendik.

Egunkari bat? Senarrak etxera beti Berria eramaten du eta asteburuetan El Pais ere, eta nik hau irakurtzen dut, zaila egiten zaidalako euskaraz irakurtzea. Hori da zaindu beharko nukeen kontua.

Telebista saio bat? Ez dut halakorik jarraitzen baina Wazemank dut gustuko, eta pelikulak.

Beldurrik? Familian edo ingurukoen osasun falta, baina ez dut denbora ematen horretan pentsatzen.

Oporrak non eta zertarako?

Kostaldean eta atsedena hartzeko.

Leku zehatz bat... Hemengo itsasoa, Kantaurikoa, asko gustatzen zait, baita Kataluniako inguru batzuk ere.

Nora ez zinateke joango? Jendea beteta dauden leku horietara.

Liburu bat? Ez dizut bat esango, baina Vargas Llosa asko gustatzen zait,... eta Julio Llamazares idazle leondarra.

Film bat? Orain dela gutxi ikusi dudana 'Algo parecido a la felicidad'; iaz Donostian saritu

zuten eta orain arte ezin izan dugu hemen ikusi.

Edari bat? Cava.

Janari bat? Arroza.

Kolore bat? Beltza.

Ze motatako musika entzuten duzu? Musika klasikoa edo barrokoa,..., eta Laboa.

Kirola? Pilota.

Zer da Gasteizek duen onena?

Hiri txikia dela eta horrek dakartzan abantailak.

Eta txarreana? Agian kultura aldetik dagoen eskaintza.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Ez, gaur egun ezta pentsatu ere.

Amets bat? Alabek zorte pixka bat izatea lan munduan.

Amesgaizto bat? Ez dut inoiz gauza horietan pentsatzen.

Zer eskatzen du herriak? Euskaldunok izandako espero genuen notiziarik onena, su-etena,..., eta horrek atzera ez egitea.

Lo egiteko, zer da hobe, konpainia edo koltxoi on bat? Inportanteagoa konpainia.●

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA
ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRYSTA

TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak



Zure arropa eta oinetakoak

www.sariudenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRAL
TABERNA

Errespetu, astolduenetik oardura

**JANTOKI
BEGETARIANOAK**

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztekoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN
Artisanu



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa: 945 23 39 90

Heldu da eguzkia...



Eguzkitarako edozein betaurreko
erosten duzula ere, Mendia Optikak

erloju zoragarri hau

OPARITUKO DIZU

Eta orain eguzkitako

betaurreko graduatuak **65€**etatik

CHANEL PRADA Ray-Ban arnette Silhouette

Calvin Klein FENDI VOGUE Pepe Jeans bonardi

Promozio hau 06/05/01etik 06/08/31ra egongo da indarrean, edo erlojuak bukatu arte.

**150 URTE
BETE DITUGU**
1856-2006
ikus dezazun

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

AHAZTUAK 1936-1977

OROIMEN HISTORIKOA galdu ez dadin



aurkezpena. uztailak 1.
'ahaztuak 1936-1977'
elkartearen aurkezpena
araban; parte hartu
zuten: santi orue (laua-
xetaren senidea), andoni
txasko (martxoak 3), lan-
der garcia (arabako
ahaztuak 1936-1977),
marcelo alvarez (ahaz-
tuak 1936-1977) eta
felix placer

1936ko gerrako biktimak gogoratzeko eta haientzako justizia eskatzeko sortu da Ahaztuak 1936-1977 elkarte, horren alde orain arte ezer gutxi egin dela iritziz. Gerrak eragindako isiltasuna eta bidegabekeria zuzentzea kalte-ordainak baino garrantzitsuagoa dela uste dute elkarte berriaren sustatzaileek eta, horretarako, indarrak batu nahi dituzte helburu bera dutenekin.



gasteizko la paz espetxean ateratako argazkia (1936)



'batallón de soldados trabajadores nº 16' tenerifen, 1942. urtean. hiru preso-langile (hiruretako bat gasteiztarra) teideko errepidean derri-gorrezko lanak egiten

[edurne begiristáin]

[arg.: ahaztuak elkarte]

Gureak 1936 elkarteko kide ohiek sortua da Ahaztuak 1936-1977 taldea. Frankismoaren biktimen auziari "funts politikoa" eman behar zitzaiola iritzita, eta gai hori Euskal Herri mailako egitasmo orokor baten barruan kokatu nahian sortu zen Ahaztuak 1936-1977, elkarteak Araban duen bozeramaile Lander Garciak azaldu digunez.

Ahaztuak 1936-1977 elkarteak memoria historikoaren aldarria egiten du, eta gerrak eragindako basakeriaren aitorza egitea ezinbestekoa dela nabarmendu du. Halaber, biktimak gogoratzeko beste ikuspegi bat beharrezkotzat jotzen dute elkartekoek. Haien ustetan, hildakoek ez zuten sekula duintasuna galdu, bazekitelako zergatik egin zuten borroka. Datu zehatzik inon ez badago ere, ikerlari eta historia adituek eman dituztenak gogora ekarri dituzte: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 5.500 fusilatu izan zirela uste da, hildakoak 7.000, atzerriaratu behar izan zutenak 150.000, eta preso sartu zituztenak, berriz, 90.000 inguru.

Hala, oroimen historikoan oinarrituta, egia, ordaina eta justizia



otxandio. bonbardaketaren 70. urtemugan (uztailak 22) egindako ekitaldia, otxandioko udalak eta 'andikona 1936' elkarteak antolatuta; zenbait lan talde gonbidatu zituzten omenaldian parte hartzera, horien artean 'ahaztuak 1936-1977'

lortzea dira elkartearen hiru helburu nagusiak. Egia, benetan zer gertatu den jakiteko: "Hemen diktadura frankista bat egon da, eta jakin nahi dugu nortzuk izan ziren hiltzaileak, arduradunak, laguntzaileak, nork atera zizkion etekinak egoera horri, zenbat kaltetu egon ziren...", diosku Garciak. Berrogei urtez gertatutakoaren inguruan "ahaztura instituzionala" inposatu dela, eta "beldurra eta isiltasuna" dela medio inoiz ez dela horretaz hitz egin, iritzi dio Ahaztuak-eko kideak.

Ordainari dagokionez, berriz, kalte ekonomikoaz gain, "errealitatea historikoki, moralki, politikoki eta juridikoki" erreparatzea nahi du elkarteak. Eta, azkenik, justizia arloan Espainiako "inpunitate ereduarekin" amaitzea lortu nahi dute. Izan ere, Garciak salatu duenez, munduan ez dago Espainiakoa bezalako kasurik. "Trantsizio modeliko hura, puntu finaleko legea, faxisten mesedetara egin zuten, eta hori ez da ez Argentinan, ez Txilen, ez Ganbian pasatu".

JAZARPEN FRANKISTA, 1977A ARTE, GUTXIENEZ

Francoren errepresioa haren heriotzaren ondorengo urteetan ere indarrean egon zela argi dute Ahaztuak-eko kideek. Horregatik, bi data esanguratsu aukeratu dituzte euren elkarteari izena jartzeko. 1936, orduan gertatu zelako Gerra Zibilari hasiera emango zion estatu kolpea, eta hortik aurrera hasi zelako diktadura. Eta 1977ko data aukeratu izana ez da urte horretan errepresioa amaitu zelako, "faxisten krimenak" ez aztertzeko puntu finaleko legea ezarri zelako baizik. "1977an lege hori bultzatu zutenean, inor ez zen epaitegitik pasa, justiziarik ez zen egon, bakarrik zigorgabetasuna eta isiltasun maindire bat jarri zen", salatu du Ahaztuak-eko ordezkariak.

ESPAINIAKO GOBERNUAK, AUSARDIARIK EZ

Isiltasun instituzional horren isla da, neurri batean, Espainiako Gobernuak landu duen Memoria Historikoaren aurreproiektua. Lege egitasmo horrek erakusten du, Garciaren aburuz, PSOEk

ARABAN ERE, ERREPRESIOA GOGOAN

Arabaren milaka herritarrek errepresio frankista bortitza pairatu zutelako Ahaztuak 1936-1977 elkarteak aurkezpenean egin zuen Gasteizen. "Erailketak, afusilatuak, kartzela, esklabutza, injustizia eta hainbeste ondorio jasan zituen gure gizarteak. Hala ere, inoiz ez dugu izan arabatarrok, frankismoagatik kaltetuok, inolako antolakuntzarik egoera hauek salatzeke", adierazi zuten egindako aurkezpenean.

Besteak beste, Gasteizko kaleetan mantentzen den sinbologia frankistaren aurka aritzeko konpromisoa hartu du Ahaztuak-ek. Gasteizen egindako aurkezpenean gogor salatu zituzten zenbait adibide:

■ Ramiro de Maeztu jaiotako etxean Udalak mantentzen duen plaka frankista batek "precursor de la España eterna" eta "paladín de la hispanidad" esaldiekin gogoratzen du Miguel Primo de Rivera diktaduraren enbajadorea Argentinan izan zela. Eta diktadore horren seme Jose Antonio Primo de Riveraren (Marqués de Estella) partidukidea izandako Ramiro de Maeztuk bere izenarekin kale bat dauka Gasteizen. 'Marqués de Estella' kalea egon badago ere.

■ Meliton Manzanek plaka bat dauka Portal de Foronda kalean Covite-k bultzatutako eta Ibarrolak egindako monumentuan. Hortik 500 metrora Lauaxeta gudariaren omenez eskultura bat jarri dute. Ahaztuak-en ustez, frankismoaren biktimak eta berreroak alboan jartzea "errespetu falta" da. Gainera PPko ordezkariak Lauaxeta omentzeko eskulturaren inaugurazioan egon izana, frankismoa kondenatzen ez duten bitartean, "onartezina eta probokazio hutsa" direla uste du Ahaztuak-ek.

■ Santa Maria katedralean ere Franco-k egindako bisita baten oroigarria mantentzen dute.

■ Dozenaka plaka frankista daude oraindik etxebizitza askotan.

Ahaztuak 1936-1977 taldeko kideek Araban egin zuten aurkezpenean errepresio frankistaren argazki osoa bete nahi izan zuten. Horregatik egin ziren Estepan Urkiaga, Lauaxetaren senide bat (Eusko Gudarostearen komandantea eta poeta 1937an afusilatu zuten Gasteizen); Felix Placer (bere osaba ANV-ko Kontseilu Nazionalako ordezkaria eta Arabako Foru Aldundiko kudeatzailea, faxismoak afusilatu zuen Lauaxetarekin batera); eta Martxoak 3-ko Biktimen izenean Andoni Txasko.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 5.500 fusilatu izan zirela uste da, hildakoak 7.000, atzerriaratu behar izan zutenak 150.000, eta preso sartu zituztenak, berriz, 90.000 inguru. "Trantsizio modeliko hura, puntu finaleko legea, faxisten mesedetara egin zuten, eta hori ez da ez Argentinan, ez Txilen, ez Ganbian pasatu"

"borondate eta ausardiarik ez duela gaiari heltzeko, agerian geratuko litzatekeelako trantsizioa gaizki egin zela eta sistema osoa zalantzan utziko luketelako". Hala, Ahaztuak-ek Frankismo garaian emandako epaiak indargabatzeko eskatzen du, onartezin irizten diolako orduko fusilamenduek zilegi balira bezala jarraitzeari. "Hori egiten ez bada, esan nahi du ongi egin zela, zilegitzat jotzen dituztela,

www.ahaztuak1936-1977.blogspot.com



burgoseko espetxea (1938). preso gasteiztarak agertzen dira

baina PSOEek ez du ausardiarik izan epai horiek indargabetzeko". Bestelako hutsuneak ere ikusten dizkio elkarteak lege egitasmoari: uko egiten diote sinbologia frankista kentzeari, ez du hobi komunak bilatzeko laguntzarik ematen... "Aurregitasmo horrek zigorgabetasun espainiarra mantentzeko balio du", nabarmendu du Garciak.

Eusko Jaurlaritzak 1936ko gerran lan batailoietan preso egondako biktimen zatitza urte hasieran onartu zuen dekretua ere huskeria dela salatzen du Ahaztuak-ek. Ebazpenak aintzat hartzen duen kaltetu kopurua eta kalte-ordainak eskuratzeko ipintzen dizkien baldintzak onartezinak direlako daude dekretuaren aurka. Dekretuan biktimen zati txiki-txikia besterik ez dela aintzat hartzen uste dute elkartekoei. Gainera, gerrarekin lotura duten gaiak Javier Madrazok zuzentzen duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailetik aterata, eta Kataluniako agintariek egin duten bezala, batzorde berezi batean sartzea nahi dute.

ETORKIZUNEN ASMOAK

Egiten ari diren lana Euskal Herri mailan koordinatzea da Ahaztuak-ek epe ertainerako finkatu duen helburuetako bat. Frankismoaren biktimei babesa eman eta auzia salatzeko nazio mailako plataforma egitea da euren asmoa, eta horretarako harremanetan daude zenbait elkarterekin (Geureak, Martxoak 3ko biktimak...). Horrela, urte amaierarako lan taldean lan egiten duten guztien artean Euskal Herriko manifestua prestatu nahi dute. "Gure Oroimen Historikoa Euskal Herrian berreskuratu behar dugu, gaurko borroka tresna bezala, etorkizuna eraikitzeko ezinbestekoa baita gure herriaren ibilbidea argitzea".



'batallón disciplinario' tetuanen (1943. urtean maroko-ko espainiar protektoratuaren hiriburu). frankismoaren esklabuak; preso-langile arabarrak agertzen dira

Zure denda erotikoa

SEX



PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIAITZUN

geugasteiz.com



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUJA (ARABA) • Tfn: 945 430 073

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39




GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

Xabier
taberna

*musika ona
eta giro ezin hobea*

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52



Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnok: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
*"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"*

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkaturia - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ENTZI ZUBIRI, Bai&by-ko arduraduna

[edurne begiristain]

[arg.: edorta sanz]

Bai&by-k 8 urte
betetzen ditu
aurten eta
hainbat
berrikuntzarekin
dator: zentro
berri bat
Gasteizen,
Internet
bertsioa,
telefono-
eskolak,
idazketa-
modulu berria...
Bai&by-ko
arduraduna den
Entzi Zubirirekin
hizketaldi bat
izan dugu
Gasteizko
Adriano VI.aren
kalean ireki berri
duten zentroan.



“Adimen
artifiziala da
beste
sistemetatik
bereizten
gaituena”

Noiz eta nola sortu zen Bai&by proiektua?

Bai&by egitasmoa duela zortzi urte sortu zen, 1998an, baina proiektua berez lehenagotik dator. *Didaktiker*, didaktikaren ikerkuntzarako sortutako egitasmoa, didaktika arloan oso aspalditik genbiltzan didaktikari talde batek sortu genuen 1991n. Gure kezka zen iturburua zen hainbat ikasle ezin izaten dutela ikas-prozesua osatu, oinarri sendoren faltan erdian gelditzen direlako. Hau da, talde ikaskuntzak, euskaltegi eta akademietan ematen diren eskolak, oso interesgarriak dira, hainbat ikaslerentzako nik horixe gomendatuko nuke, baina taldearen batez bestekoa jarraitzen dené, zenbait ikasle atzean gelditu ohi da eta ezin du bere erritmoa eraman. Hori ikusita, pentsatu genuen informatikak ere eskaintza izugarria egin zezakeela ikasleak bere aldetik ikas zezan. Hala sortu genuen *Ikas-txip*, euskaraz ikasteko lehen softwarea. Egitasmo horretatik abiatuta Europako laguntzekin Eureka egitasmo bi egin ditugu, eta 2 milioi eurotik gorako inbertsioa egin dugu I+Gn. Hortik sortu da gaur egun Bai&by-k eskaintzen duen sistema adimenduna edo intelijentea.

Autoikaskuntza sistema honek zein alde edo abantaila ditu beste hizkuntza irakaskuntza metodoekin konparatuta?

Sistema multimedial berez oso eraginkorrak eta erabilgarriak dira, baina gure *harrikada* beti izan da informatikak beste zeozer eskain dezakeela, eta beste zeozer hori adimen artifiziala da. Horixe da beste sistemetatik desberdintzen gaituena. Zoritxarrez, hezkuntzan oso gutxi garatu dira holako softwareak. Sistemak etengabe aztertzen ditu ikaslearen erantzunak eta beste hainbat parametro: asimilazio abiadura, automatizazioa, erantzuteko denbora, oroimena epe ertain eta luzera... Gauza horiek aztertuz, diagnostiko bat egiten du eta horren gainean ikasle horrentzako estrategia diseinatu, irakasle batek diseinatuko lukeen moduan. *DDK System* teknologiarekin egiten duguna da simulatu irakasle batek egiten duena, hori da gure irakasle birtuala. Esaterako, sistemak kontuan hartzen du ikaslearen prozesua eta asimilazio abiadura. Hala, ikasle bizkorra bada, “egur” gehiago ematen dio eta bizkorrago joan daiteke, baina motela bada, mantsoago eramango du. Guk pentsatzen dugu oinarri sendorik gabe ezin dela hizkuntzarik ikasi, eta horregatik exigente samarrak gara, eta batzuetan ikasleen kexua izaten da sistema oso zorrotza dela. Baina gehienetan gero jendeak aitortzen du zorrotza bai, baina ikasi ikasten duela. Gure ustez lorez lore ibilita ikasle arruntok ezin dugu oinarri sendorik eraiki, produktu batzuk oso politak dira, oso aldakorrak... baina ez dira batere eraginkorrak.

Sistema intelijente horrekin euskaraz edo ingelesez hitz egiten ikasi al daiteke?

Ahotsaren ezagutzaren teknologia ez dago garatua, áre gubxiago euskaraz. Baina guk oso hizkuntz simulatzaile sofistikatuak erabiltzen dugu, mintzatik oso gertu dagoena. Izan ere, sistemak ez du esamolde bat gaundituztat ematen automatizatuta egon arte, ez da nahikoa esateko gauza izatea, gutxieneko abiaduraz esateko gauza ez bagara, komunikazioak huts egingo du. Horretaz gain, mintza eskolak ere eskaintzen ditugu, programarekin ikasitakoa praktikan jartzeko. Baina ikasleak jabetu beharra dauka ikas-prozesu bat ezin dela arlo akademikoan bakarrik garatu, ez gurean ez euskaltegian edo

akademia batean ere, saiatu behar du lagunekin hitz egiten, euskarazko edo ingeleseko mediak entzuten, irakurtzen...

Zein motatako jendea dator Bai&by-ko zentroetara ikastera?

Normalean jende heldua dugu, 35 urtetik aurrerakoa, baina denetarikoa jendea daukagu: profesional liberalak, ikasleak, langileak, etxekoandreak, jubilatua... Gizarte honetan gero eta denbora gutxiago daukagu, eta gero eta premia handiagoa dugu edonon eta ahal den moduan ikasteko. Datorkigun jendea da bereziki ikasteko denborarik ez duena, edo gure sistema probatu nahi duena erreferentzia onak jaso dituelako, bezeroen parte handi bat gure

duen, gero eta denbora gutxiago baitaukagu eta egiten den ahalegina itzela delako. Bai&by-n astebeteko proba egiteko aukera ematen dugu doan eta inolako konpromiso barik; beraz, jendea proba egitera animatuko nuke, eta probatu ondoren norberak ikusiko du.

Elkarrizketa hasi baino lehen, barkamena eskatu dizut Mondragon Linguarekin nahastu zaituztedalako. Zer gertatu da?

Gasteizko Bai&by-ko zentroa eramaten zuen enpresarekin auzi latza izan dugu. Hiru urteko auziaren ondoren, azkenean, joan den maiatzean Laudo bat egon zen eta Bai&by utzi behar izan dute. Kontua da, ikasleak informatu ordez, engainatu

aurkeztu dituzte Kontsumo sailean. Zoritxarrez beste jende asko ez da oraindik enteratu, Bai&by-k izena aldatu duela sinestarazi diete eta.

Eta zer egin dezakete orain arte Bai&by-n ikasi duten ikasle horiek?

Gu, Bai&by-n, Kontsumitzaileen elkarteekin harremanetan jarri eta ikasleen eskubideak bermatzen saiatu gara. Honela, hala nahi duen ikasleak aurretik kontratatuta zeukan ikastaroarekin jarraitu dezake Bai&by-n ezer ordaindu gabe; izan ere, lege zerbitzua aldatzen badizute dirua itzultzea eska dezakezu. Zentzu honetan, esan beharra dago Mondragon Linguak oso zikin jokatu duela, jendea engainatu eta diru-itzulketak ukatu dituelako.



ikasleek gomendatutako jendea da, eta oso harro gaude horretaz. Gaur egun Bai&by-k malgutasun itzela ematen du: ikasleak Bai&by-ko edozein zentroan, etxean edo lantokian ikas dezake, guztietan aldi berean, hau da, nahi badu eguerdian zentrorat etor daiteke, arratsaldean etxean eta asteburuetan beste ordenagailu batetik ikasi. Internet badauka oso ondo (ez da ADSL behar, modem soil bat nahikoa da), eta ez badauka, ere bai: Teleikaskuntzaz ikas dezake etxetik Internetera konektatu barik.

Euskara ikasi nahi baina non egin zalantzan dagoen bati, zer esango zenioke?

Oso erabaki pertsonala da. Ikasleak duen ikas-estiloaren arabera, behar eta funtzionatzeko moduaren arabera aukeratu beharko du. Batzuentzat Bai&by aurkitu dezaketen sistemarik onena da, baina autodiziplina eduki behar da. Beste batzuentzat onena da euskaltegi batean ikastea. Beste batzuek sare batetik bestera aldatu nahiago dute sistema desberdinekin eskaintzen diotena jaso eta osatzeko. Ikasleen arabera da hori. Ez dago sistema unibertsalik. Sistema edo irakaslea ona bada, sistema batekin edo bestearekin ikas daiteke. Dena dela, jendeak badaki aukera ona egiteak ze garrantzi

egin dituztela. Laudoarena ezkutatzeko itxura aldaketa bat izan dela esan diete ikasleei, eta orain arte Bai&by izandakoak Mondragon Lingua izena hartuko zuela, marketing aldetik MCC taldearen isla hobe egiteko. Ondorioz, jendeak pentsatu du Bai&by desagertu egiten zela. Gero, gertatu zaigu zentroak ireki ditugunean, jendea aurretik pasatu eta harritu egin dela, Bai&by-k jarraitzen duela ikusita. Horiek horrela, hainbat ikasle salaketak

Nolanahi ere, Mondragon Linguak egiten duena egiten duela, guk ikasleak ezer ordaindu gabe hartuko ditugu. Jendeak jakin behar du joan den maiatzetik Mondragon Lingua-k ezin duela Bai&by zerbitzua eman, hori ez dela legezkoa, eta ikasleak jakin behar dute Mondragon Lingua ez dela Bai&by eta ezin duela Bai&by programa erabili. Gero, ikasleak aukera dezatela, baina bakoitza zein den jakinda. Guk badakigu Laudoa hausten ari direla eta salaketa jarrita daukagu auzitegietan.


Elkarrizketa amaitzeko, azal dezakezu labor-labor zein den Bai&by eta Mondragon Linguaren arteko aldea?

Itxuraz antzeko eskaintza egiten dugu: euskara eta ingelesa multimedia. Baina proiektu pedagogikoak oso desberdinak dira. Labor-labor azalduta: euskara emateko ez daukate berezko produkturik eta Boga erabiltzen dute, euskaltegi guztiek erabiltzen dutena, eta ingelesa emateko Conexia, duela gutxira arte Interneten bidez saltzen zen produktua. Gainera, euren programak ez dira adimendunak. Bestalde, etxetik ikasteko ADSL kontratatzea eskatzen dute eta guk Internet gabe ikasteko aukera ere ematen dugu. ●



IRATXE JAIO artista gasteiztarra,

Rotterdam eta Gasteiz dira 'Meanwhile, in the living room...' (Bitartean, egongelan...) Iratxe Jaio euskaldun eta Klaas Van Gorkum holandar artisten lanaren abiapuntua. "Egongela baten forma duen instalazio honetan, bi leku horietako publikoak aurpegiz aurpegi jartzen ditugu", dio Jaio. Azken egitasmo hau Artium museoan izan da ikusgai iraila bitartera. Urritik aurrea ordea, Iratxek, bere bikote eta lankidea denarekin batera, lan berria izango du erakusgai Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean.



[arg.: angelika krintzing]

[josune veleaz de mendizabal]

[arg.: iratxe jaio & angelika krintzing]

Lizentziatu ostean Holandara joan zinen ikasketekin jarraitzeko asmoz. Zenbait beka jaso eta gero etxera bueltatu ordez Holandan geratzea erabaki zenuen. Artistentzako irteera errazagoa topatzen al da Euskal Herritik kanpo?

Holandan, artisten egoera oso desberdina da bai, eta Unibertsitate ostean ikasten jarraitzeko dauden aukerak oso interesgarriak dira. Baina ez nuke nahi han edukitako esperientzia horrela murriztu. Holandan bizitzea oso garrantzitsua izan da niretzat nire bikote eta lankidea dena, Klaas Van Gorkum, ezagutu bainuen han. Eta arrazoi pertsonalez gain, neure burua gauza berrietara zabaldu nahi nuen. Jaioterritik urrun bizitza bat ezartzeak normalizat hartzen dituzun gauza asko zalantzan jarrarazten dizkizu. Esperientzia edo prozesu honek artista moduan ere eragin handia ekarri zuen. Nire lanean banakako eta taldeko nortasunaren arteko harremana aztertzen dut. Nola egin ikerketa hau beti ezagutu izan duzunarekiko



bitxiak / zilarra / osagarriak

**Bilduma berriak
udazkenerako**

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



Holandatik Euskal Herrira

distantziarik hartu ezin duzunean?

Leku eta kultura desberdinen artean egote horrek asko laguntzen dit lana jorrazteko orduan. Ikusi orain ere: azken urte honetan, Bilbon eta Gasteizen lanean egon eta gero, Estokolmo (Suedia) puntatik ari natzaizue, non Klaas eta biok Gasteizi buruzko lan bat egiten egon garen lau hilabetetan zehar.

Zer erlazio mantentzen duzu Euskal Herriarekin? Zure obrak ikusgai izan dira Artium eta Bilboko Rekalde aretoetan, errazagoa da kanpoan ikastea, ostean etxean zure lana baloratuagoa izan dadin?

Nire lana oso desberdina izango litzateke Euskal Herrian hezi ez banintz. Horregatik, etxean erakusteko pausoak ematea zentzuzkoa da. Pasa den urtean, Holandan sei urte egon eta gero, Euskal Herrian lan egitea interesgarria izango litzatekeela iruditu zitzaigun Klaas eta bioi. Bikote moduan ere, bazen rola aldatu eta atzerritarra bera izateko ordua. Horrela, BilboArte Fundazioan lan egiteko eskaera egin genuen. Baiezkoa jasota, bertan egon ginen sei hilabetetan zehar. Orduan suertatu zitzaizkigun inguruan erakusteko aukera batzuk. Markina-Xemeinen adibidez, nire jaioterrian, Uhagon Kulturgunearekin harremanetan jarri eta gero, erakusketa areto berria estreinatze gonbidapena egin ziguten. 'Ezin nuen sinetsi inork nire moduko istoriorik eduki zezakeenik' izan zen erakusketaren izenburua. Bertan, Camilla, Hego Korean adoptatutako neska daniar baten istorioa kontatzen genuen. Jatorriarekiko ohiko erlazioari desafio egiten dion istorioa da hau.

Euskal Herriko artisten artean, "lokalaren" eta identitatearen gaia ez da berria. Testuinguru

honetan, nik uste dut gure lanak ekarpen berriak egiten dituela, bertokoarekin eta atzerriarekin dugun hartu- emana dela eta.

Zertan ari zara orain lanean?

Marrakzi bilduma bat osatzen ari gara, gure bideoen fotograma eta dokumentu digitaletan oinarrituta. Gasteiz hiriko hedapenaren testuinguruan, etxebizitzari buruzko politikak bizitza, familia eta ugalketa bezalako kontzeptuekin lotu nahi izan ditugu. Proiektu hau etengabe hazten dagoen gidoi grafikotzat har dezakegu, ereduaren eta errealitatearen arteko harreman zaila azaltzen duena. Lan hau 'Gure Artea 2006' erakusketan paratuko dugu Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, urriaren 19tik aurrera. ●


Biografia eta ibilbide artistikoa:

✓ Iratxe Jaio (Gasteiz, 1976) EHU lizentziatu zen Arte Ederretan 1998an. Rotterdameko Piet Zwart Institutuan eta Maastrichteko Jan van Eyck Akademian graduatuondak.

✓ 2003an emakume artistentzako Mama Cash saria jaso zuen Holandan.

✓ Erresidentzia-bekak: Belfastko Flax Art Programan eta Luxenburgoko Re:Location Academy-Shake Society in Casino, Forum d'art contemporain-en.

✓ Bere lanak ikusgai izan dira, Madrilgo Sofia Erreginaren Arte Zentroan, Murtziako Parraga Zentroan, Rekalde Aretoan, Austriako Linz-eko Centrum für Gegenwartskunst-en, Gasteizko Artium Museo Garaikidean eta Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean.





GASTEIZ BIG BAND

jazzaren ortzadar anitza

Duke Ellington, Charles Mingus, Dizzy Gillespie edota Count Basie musikari handien izenekin harremantzen dugu Big Band kontzeptua.

Hogei lagun edo gehiagoko taldea eszenatokian musika erritmo beroenean Jazz estilo anitzaren ortzadarra osatuz: swing, bebop, cool, hardbop, free jazz eta fusioa. Horretan guztian, baita garai berriek dakartzaten musika tendentzia berrien uztarketan ere, aritzen da Gasteizko Big Band taldea sortu zenetik.

GASTEIZ BIG BANDeko MUSIKARIAK

>Zuzendari musikala:

Iker Sanchez

>Baxu elektrikoa:

Eneko Espino

>Perkusioa:

Jaime Andres Moraga

Periko Ruez

Sergio Lpz. de Landache

>Gitarra:

Asier Rodriguez

Mikel Merino

>Pianoa:

Laura Ortega

Guillermo Lauzurica

>Bibrafonoa:

Carmen Gonzalez

>Ahotsa:

Ainara Ortega

Oihane Glz. de Viñaspre

>Saxoa:

Ana Isabel Bravo

Joseba Lamelas

Pablo Ramos

Rodolfo Noriega

Senab Lafuente

Antonio Olivo

>Tronboia:

Gonzalo Fdez. de Larrinoa

Oscar Fuente

Raul Loma

>Tronpeta:

Diego Duque

Ernesto Coca

Gorka Sanvicente

Eneko Varona



[Josune velez de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Hamar urte bete ditu aurten Gasteiz Big Band taldeak. Luis Aranburu musika eskolan aritzen ziren zenbait irakasle eta ikasleen jazzarekiko zaletasunak piztu zuen ordura arte Gasteizek ez zuen Big Band taldea osatzea. "Asmoa musika mota hau ezagutaraztea zen. Zaletasun handia zegoen Luis Aranburu musika eskolan aritzen zirenen artean eta hastapenetan taldeak Luis Aranburu izena hartu zuen", nabarmentzen du Eneko Espino taldeko baxu elektrikoa denak. Hala eta guztiz ere, urteak aurrera joan ahala musikariak eskolakoak izan ezezik, edozein tokitatik etorriak izan zitezkeela adostu zuten, eta horrekin batera, taldea irekiagoa egiteko ideiarekin izen berria ere eman zioten egitasmoari, Gasteiz Big Band, alegia. "Denboraren poderioz taldea modu profesionalago batean joan da osatzen eta azken urteetan batez ere kalitate aldetik pauso handia eman dugu. Eskarmentuaren ondorioztat hartzen dugu hau", baloratzen du Espinok. Astean behin bi orduz entseiuak egiteko biltzen dira banda egun osatzen duten hogeita bost musikariak. "Honetaz gain, musikariok jakin badakigu gure kasa ere egin beharreko esfortzua handia dela. Bi ordu ez baita nahikoa", onartzen du baxujoleak.

40ko hamarkadan munduak ezagutuko zuen musika latinoaz gain, Gasteiz Big Band-ek funky soinuak, hip-hop kolaborazioak eta abesbatzekin ere uztartzen ditu bere kantak. "Ondo pasatzea

da gure asmoetako bat, baita berez erritmo handia duen musika mota hau eza-gutaraztea ere -azaltzen du gazteak-. Horretarako kolaboratzen dugu musika tendentzia desberdinak lantzen dituzten musikariekin, Hezkuntza eta Lanbide Eskolakoekin ere ikus-entzunezkoak prestatzen aritu gara..."

GASTEIZEN JAZZA URTE OSOAN

Gasteizen berez, jazzaren kultura ez da kontu berria. Dagoeneko aurtengo bertako Jazz Jaialdiak 30 urte bete ditu. Hala ere, jazz ez da mugatzen uztaleko hilabetera oro har pentsa daitekeen bezala. "Kontzertuak hainbat tabernatan eskaintzen dira urte osoan zehar. Gasteizen badago nolabaiteko jazzarekiko mugimendua. Ahaztu gabe gure hiritik jazzean modu profesionalen aritzen diren izenak ere badirela, hala nola, losu Izagirre, Koldo Uriarte edota Hasier Oleaga, batzuk aipatzearren", adierazten du.

Gasteiz Big Band taldeak oso ibilbide oparoa egin du azken urteetan eta 'Big Band Jazz Festival' delakoa prestatzen hasi zirenetik bere musikak oihartzun handiagoa lortu du. Lehenengo edizioak Azkena aretoan izan zuen leku eta orduan jazz, abesbatza eta perkusioarekin uztartu zuten. Iaz, bigarren, Principal antzokian eskaini zuen Gasteiz Big Band-ek kontzertua. Aurtengoa hirugarren jaialdia izan da, ekainean Mendizorroztan eginiko ikuskizuna; bertan Gasteiz Big Band aritzeaz gain, Javi P3Z Orquesta, Iñaki Salvador 9 eta eta Big Band Berri ere izan ziren entzungai. >>

datuak

- Gasteizen egun Gasteiz Big Band taldeaz gain, beste jazz orkestra bat sortu da, Luis Aranburu musika eskolaren eskutik osatuta dagoena, Big Band Berri.
- Euskal Herriko big band-ak: Musikene musika eskolako eta Iruña Big Band (Iruñeko).
- Bestelakoak: Pirinio Jazz Orkestra, Pirinio aldeko musikariez osatuta dagoena, batik bat, Euskal Herriko, Catalunya eta Akitaniako profesionalak osatzen dutena.
- Informazio gehiago: www.gasteizbigband.com

ENEKO ESPINO, Gasteiz Big Band-eko musikaria *“Zorte handikoa naiz, gustuko dudana lanbide dut eta”*

Aita dantzaria du Eneko Espinok eta agian hainbatetan gertatu ohi den moduan umea txikitatik etxean ikusten duenaz zaletu eta euskal folkloreaz liluratuta musika munduan murgildu zen. Beharbada ere berezko dohainak egun aurkezten duen musikari ibilbide profesionalean zerikusi handia izan zuen. Hala edo nola, Eneko Espino (Gasteiz, 1974) egun Gasteizko Udal Folklore Akademiako musika irakasle, Gasteizko Udal Txistularien Bandako txistularia eta Gasteiz Big Band taldeko baxu-jotzailea da.



Zure lanbidea musikari lotua dago erabat. Gaztea izan arren ibilbide oparoa aurkezten duzu orain artean. Noiz agertu zenuen musikarekiko zaletasuna?

Musika betidanik etxean entzun dut, aita dantzaria da. Txikitatik aritzen nintzen beti txistuarekin jolasean. 9 urterekin Zaramagako Kimutxo dantza taldean txistua jotzen nuen, zaletasuna nuen. Ondoren Udal Folklore akademian ikasten hasi nintzen. Pedro Elozegi eta Roberto Alvarez izan ziren nire irakasleak eta beraiek bultzatu ninduten gehiago ikastera. Ni aplikatua nintzen eta beraiek esanda aukerak nituen horretaz bizi ahal izateko edo. Orduan Jesus Guridi kontserbatorioan matrikulatu nintzen eta ostean irakasle izateko titulua atera nuen. Hemeretzti urterekin Olaztiko Musika Eskolan, Olabiden edota Vedruna ikastetxean txistu klaseak

ematen nituen. 2001ean Udal Folklore Akademian oposaketak egon ziren eta ordutik txistu maisua naiz bertan.

Txistuaz gain, baxua ere jotzen duzu. Zenbait talde desberdinekin aritu zara orain arte, egitasmo ezberdinetan hartu duzu parte... musika entzuten den tokian, dela kontzertu bat, dela jaialdia, dela ikuskizuna Eneko Espino ez da urrun izango. Jotzeko grinak egiten al du pertsona musikari?

Bai, zalantzarik ez. Hainbat taldetan parte hartu dut orain arte, jazz laukotea ere osatu genuen lagun batzuekin. Azken finean, musikari batek nahi duena edo nik behintzat nahi dudana da jotzen dudanean jendeak ongi pasatzea. Egiten duzun sortze lana entzungai jartzea inportantea da niretzat, jendeak ezagutu eta konpartitu dezan. Baxuaren

kasuan duela zazpi urte hasi nintzen jotzen, “puntazoa” eman zidan eta erosi nuen. Jotzeko gai naizen arren, ez da txistuarekin bezala, oraindik baxuarekin ikasten ari naiz eta.

Bada, zer eman dizu musikak?

Bizitza osoa eman dut musikarekin. Musikak dena eman dit, ze erantzun tipikoa, ezta? (barreak). Baina hala da, hortaz, bizitzeko aukera, lan egiteko aukera... eta gainera zorte handia dut gustuko dudana lanbide dudalako. Amorrua ematen dit ordea, jendeak galdetzen dizunean eta zuk txistua jotzen duzula erantzuten duzunean “hori bakarrik ikasi duzu?” dioen aurpegiarekin begiratzen dizutenean. Kontserbatorioan ere horrelako giroa suma daiteke, bigarren edo hirugarren musikariak bezala tratatzen zaituzte jotzen duzun musika-tresnaren arabera.

Musikari bat ona izan daiteke jotzen duen musika mota edo musika tresna dena delakoa ere. Ez zait gustatzen klasifikazio hori. Kontua da musika barrura iristea. Musika eta sentimenduak oso bateratuak daude eta musikaren bitartez sentimenduak kanporatzea gustatzen zait.

Ametsik?

Musikari dagokionez, txistulariez osatutako taldea sortzea gustatuko litzaidake baina denbora falta da nagusi. Bestetik, nire pasioa argazkilaritza da. Iaz lehenengoz Arte eta Lanbide Eskolan Koldo Mendazarekin argazkilaritzako klaseak eman nituen eta aurren ere bigarren maila egingo dut. Urtebetez bidaiatzea gustatuko litzaidake nahi beste argazkiak egin ahal izateko. Licenciada Zabaleta Farmacia izeneko Judimendi auzoko tabernan ipiniko ditut zenbait argazki erakusgai urrian. ●

gasteizko tranbiaren lanak hasi dira

gasteizko itxuraldaketa eragingo duen tranbiaren obra hasi da jada. ehun milioi euro inbertituko dituzte gasteizko iparralde, alegia lakua eta abetxuko auzoak, erdialdearekin lotzeko. tranbiaren zortzi bagoi arituko dira hemendik bi urtera lan horretan. egitasmoak eusko jaurlaritzaren, arabako foru aldundiaren eta gasteizko udalaren babes ekonomikoa du. gasteizko tranbiaren ibilbideak "y" itxura hartuko du.



18/98 + lan taldeak elkartasun kontzertua antolatu du azaroaren 11rako, becen

18/98-ko auzipetuei babes emateko elkartasun kontzertua emango du fermin muguruzak azaroaren 11n barakaldoko becen, 18/98 + lan taldeak antolatuta. sorkun izango du lagun muguruzak, euskal herritarren eta jamaikarren artean osatutako musikari multzoarekin batera; kubatik eta kataluniatik ere etorriko dira musikari bana, besteak beste. euskal herria jamaika clash lana aurkeztuko du muguruzak elkartasun jaialdi horretan.



hiriko arte zentrorik handiena izango du gasteizek 2008an

orain arte arabako hiriburuak izandako arte zentrorik handiena zabalduko dute gasteizen, 2008an. betoñoko komentuan eraikiko du zentro berria vital kutzak. gasteizko eskaintza kulturala sustatu eta gazte artisten garapen eta formakuntza lortzeko gunea izango da. betoñoko eraikina horretarako egokituko dute, eta 12 milioi euroko aurrekontua bideratuko da lan horretara.

llach. la revolta permanent filma estreinatu dute

1976ko martxoaren 3an gasteizen espainiako polizia egin zuen sarraskiaren inguruko pelikula estreinatu zuten irailean, donostiako anoetako belodromoan. lluis danes zuzendariak lluis llachen campanades a morts kantaren historia kontatzen du filman. alde batetik, llachen beraren historia, eta bestetik, kantak berak kontatzen duena. hori da abiapuntua eta hori da amaiera. zenbait biktimak parte hartu dute pelikulan.

gazapo barregarria

bitxia bezain barregarria izan zen irailaren amaiera aldera 'diario de noticias de alava'n topatu gazapoa: a.m.b.a. elkarteak (asociación de amigos del museo de bellas artes y artium de alava) pastel pintura-teknikaren inguruko ikastaroa antolatu ('curso de iniciación al pastel') eta d.n.a.-k horrela iragarri zuenean. irudiak dena



adierazten du:

gari indarrez dator

oso kontzertu ona garik irailaren 22an gasteizko artium museoa emandakoa. asebate eta sentsazio bereziaz atera ginen bertara bildutako asko. 22:00ak aldera indarrez eta dotoreziaz beteriko gari bat igo zen eszenatokira. banda berriaz, kalitatezko soinuaz eta ahots sendoaz, bere 3 diskoetan barna bidaia berriak egitera gonbidatu gintuen, gari eguzki berritan dagoela agerian utziz, bai eta giroaren termometroa goruntza igoz ere;




gehienak bertsio berri berritzaileak izan ziren. ostean, kolaborazio berezia izandako athom rumba-ko gitarrarekin bere hurrengo laneko kantu batzuk ere aurkeztu zizkigun, eta nola aurkeztu gainera! baina ez hori bakarrik, esaterako, hertzainak-en 'aitormena' edota bisetako 'ta zer ez da berdin' kantuen bertsio apurtzaileez ere gozatu baikinen. kontzertu fina eta sorpresaz beterikoa, aukera bakarra diren horietakoa. hitz batean, luxu bat.



'mihiluze' saiorako lehiakide bila dabil etb

bikoteak behar dira urritik aurrera egunero ikusgai izango den saio berriturako orain arte astean behin ikusgai izan den lehiaketa berrituta itzuliko da urrian. egunero izango da ikusgai etb-1en eta bikoteka parte hartu ahal izango da. izena emateko edo publiko gisa etortzeko bi modu daude: 943 01 17 80 telefonora deitu edo mihiluze@eitb.com helbidera idatzi. udazkenean abiatuko du "mihiluze" saioak denboraldi berria eta oraingoan ere lehia eta umorea izango ditu oinarri. berrikuntzen artean bi dira nabarmenenak: egunero-kotasuna -astelehenetik ostegunera izango da ikusgai- eta bikoteak izango direla nor baino nor.

lehia eta umorearen arteko uztarketa izanik, parte hartzaile bizkorak, ausartak, eta drogosoak behar dituzte. proben artean, jada etxeko bihurtu diren klasikoak mantenduko dira (tribuaren berbak, potokumeak, esamesak,...), berbalibreak (antzezpenak) desagertu egingo dira eta proba berriak ere ikusiko ditugu denboraldi honetan. 'mihiluze' saioak 1.000 euro jarriko ditu jokoan egunero, ordu erdi iraungo duen lehiaketan. gainera, zakua eramateko aukera ere izango dute bikoteek. kike amonarriz eta ilaski serrano izango dira gidariak.



JESUS OBRERO IKASTETXEA

jose ramon iñarga irakaslea talde irabazlearekin

Jesus Obrero institutua zorioneko dago. Izan ere, DBHko B ereduko ikasle talde batek Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Abelino Barriola Deklamazio Saria irabazi du. **Euskal Herri osoko** 114 taldek eta 2.000 ikasle baino gehiagok parte hartu dute, baina azkenean Gasteizkoek egindako lana garaile atera da. Saria, Ipar Euskal Herrirako 4 eguneko multiabentura bidaia.

ABELINO
BARRIOLA
DEKLAMAZIO
SARIAren
IRABAZLE

[saioa fdz de arangiz]

[arq.: edorta sanz]

Urriaren 2an Jesus Obrero ikastetxeko Jose Ramon Iñarga euskara irakasleak eta DBHko B ereduko ikasle talde batek Donostiako Miramon Jauregira egin dute bidaia, irabazi Abelino Barriola Deklamazio saria jasotzeko asmoz. Irakurketa sari hau urtero antolatzen du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta Bigarren Hezkuntzako 1. zikloko ikasleei zuzenduta dago. Zehazki, Jesus Obreroko taldea DBHko B ereduko kategorian izan da garaile. Aurten Euskal Herriko 114 taldek eta 2.280 ikaslek parte hartu dute, beraz, Gasteizkoentzat ez da lehiaketa samurra izan. Gainera, zeharo berria zen eurentzat, Jesus Obrero ikastetxea lehiaketara aurkezten den lehen aldia izan baita.

Igaro den ikasturtean zehar, ikasleek prestatu behar izan duten lehiaketa honek bi helburu ditu; batetik, eskola-umeen irakurmena landu eta testu idatziak ahoz adierazten irakastea, eta bestetik, behar den erraztasunez, ebakera zuzenaz eta doinuera egokiz irakurtzen ikastea. Horretarako, hiru izan dira kasete edo CD batean prestatu eta grabatu behar izan zituzten testuak: antzerki zati bat, hitz lauzko irakurra (ipuinak) eta bi olerki.

TALDE LANA

Oihane Torre, Lorena Hernandez eta Imanol Estevez gazteak talde irabazlearen partaideak dira eta oso pozik daude lortutakoarekin. Euren euskara irakaslea den Jose Ramon Iñargak animatu zituen lehiaketan parte hartzera. Hala ere, gainontzeko lana eurek egin zuten. "Iñargak testuak aukeratu zituen, baina gero quk

prestatu behar izan genituen. Grabazioa prestatzeko gidoia hogei bat aldiz irakurri genuen elkarrekin, klase orduetan zein klasetik kanpo ere. Gogo handia jarri genuen eta asko entseiatu genuen", diote hiru ikasleek.

Orora klaseko 15 ikasle inguruk lagundu zuten prestaketan. Guztien artean, gidoia prestatu eta grabazioan irakurketarekin batera sartu beharrekiko efektuak ere aukeratu zituzten, hala nola, teklatu baten soina, apaizen kantu gregorianoak edo pausoak. Izan ere, prestaturiko gidoia gazta saldu nahi zuten apaiz batzuen iragarkia baitzen.

Bestalde, Iñarga euskara irakaslearentzat ere garrantzitsua izan da saria. Bere esanetan, "okertu gara pentsatzean Araba Euskal Herria mailan deklamazio alorrean saria irabazteko gai ez zela. Beraz, euskara alorrean Araban ere gauzak ondo egiten ari garela argi geratu dela uste dut".

Bestetik, Oskar Espinosa bertako irakasleak Arabako ikasleek Euskal Herri mailan irakurketa arloan zerbait lor zezaketela sinetsi zuen hasieratik, eta horregatik, lehiaketaren informazioa jasota eta zenbait testu bilduta, euskara irakasleak lehiaketan parte hartzera animatu zituen. Horrez



oskar espinosa, jesus obrero ikastetxeko irakaslea

gain, Oskarrek ere ikastetxeko beste hiru talderekin parte hartu zuen lehiaketan eta biziki pozten da lortutako sariarekin.

Hortaz, esperientzia ezin hobeia izan da guztientzat eta ikasle taldeak esan legez, datorren urtean ere parte hartu eta irabazi nahiko luke.

Mementoz, aurtengo sariaz gozatu behar dute oraindik. Ikasleek (29 guztira, talde osoa) lau eguneko multiabentura bidaia egingo dute Ipar Euskal Herrian. Irakasleak, aldiz, euskaldunon modura beren hizkuntza indarberritzen saiatzen ari diren edo ahozketasunean ibilbide luzea egin duten Errepublika Baltikoetara 10 eguneko bidaia egin du jada.●

abelino barriola deklamazio saria

Ikasleen artean euskararen erabilera bultzatzean euskara horren nolakotasuna edo kalitatea zaindu behar delakoan sortu zuen Eusko Jaurlaritzak Abelino Barriola Deklamazio Lehiaketa. Bere xede nagusia ikasleen artean irakurmena landu eta testu idatziak ahoz ondo adierazten irakastea da, baita ikasleek ahozkorako, eta jendaurreko irakurketan ebakera, doinu eta erritmo egokia erabil dezatela bultzatze ere.

Euskaltzaindia eta EITBko ordezkariak, Berritzeguneetako Hizkuntza Normalkuntzarako teknikariak, euskal deklamazio alorrean berariazko itzala duen jakitun bat eta Euskara Zerbitzuko bi kide dira sariaren epamahaia osatzen dutenak. Hauek honako aldeak hartzen dituzte kontuan: talde lana, irakurketa erritmoa, sinesgarritasuna, euskararen fonetika-legeak eta ebakera-arauak, azentua eta naturaltasuna.

Informazio gehiago: www.ulibbarri.info

> izen-abizenak: _____
 > helbidea: _____ > telef zk.: _____
 > hiria-herria / posta-kodea: _____ > herrialdea: _____
 > kontu korrontearen 20 dijitoak + titularraren izen-abizenak: _____

GEU

Pedro asua kalea-2-3.a
01008 gasteiz

[illegible]

cd-ak

une

'une nare eza' une taldea

'une nare eza' | une taldea | oihuka-2006ko iraila | www.uneikin.com



rober garzia: gitara (ortuella) karmelo aretxaga "melows": baxua (algorta)
xabi ora de zumarraga: bateria (bilbo) aitor uriarte: ahotsa (oñati)
"guztia hain azkar doakigun gizarte honetan, askotan norberarentzako uneak ere beharrezkoak izan ohi dira. ihesbideak musikarekin edo lagun artean aurkitu ohi ditugu", eta horrela islatu nahi izan dute taldearen izenean.

zaila da uneren sortze data bakarra jartzea, musika talde hau denborarekin forma hartzen joan den taldea baita; jende ezberdina pasa da eta bakoitzak bere ukitua utzi du.

2005 urterako taldea bere azken forma emanda zegoen eta hor nonbait jaio zen une berezko nortasunarekin. 2005eko otsailean lau kantuz osaturiko maketa grabatu zuten, eta urte bereko bukaeran oihukarekin lehen diskoa grabatzen hasi ziren.

2006ko apirilean 'bihozkadak' kantua aurkeztu zuten diskoaren aurrerapen gisa, eta oihuka-ren eskutik kantu horren bideo-klip bat ere egin dute. diskoa irailean argitaratu da eta, halaber, hontza produkzioak gira bat prestatuko du hurrengo hilabetetan taldeak diskoa jendaurrean aurkeztu dezan.

'sorminetan' anje duhalde

elkar-2006ko iraila | www.elkarlanean.com



1998. urtetik ez genuen lapurdiko kantariaren berezko kantu berriak jaso.
2000. urtean george brassens-en kantuen bertsioez osatutako disko zotil eta ederraren ostean, oraingoan berriro bere mundura dator anje duhalde: bere ahotsaren sujerentzietan oinarriturik, rock-blues-folk estiloetan emaniko aire herrikoien sentikor bezain baikor eta aurrerakoia.

rafa rueda produktore artistiko eta mikel f.kruzaga teknikari direlarik, anje duhalderen disko berri honen kalitatea zein profesionalitatea bermaturik dago.

zinea

nömadak tx

www.sansebastianfestival.com

zuzendaria: raul de la fuente* zuzendarikideak: pablo iraburu, harkaitz mtz de san vicente, igor otxoa



*duela hamar urte, pablo iraburu zuzendari eta ekoizleak dokumentalgintzaren atea zabaldu zizkion eta, geroztik, eskuz esku lan egin dute makina bat proiektutan eta orain elkarrekin sinatu dute nömadak tx. munduan zehar dokumentalak filmatzen ibilitakoa, aipagarri dira indiako artista ibiltariei buruzko janavak, san frantziskoko auzo bateko distrito cinco biziraupen istorioa, txorien hegaldiaren bidez islatutako askatasunaren ikus-metefora den volar, eta 373 años de son, nueva trova santiaguerearen ikus-entzunezko erretratua.

txalapartak parekorik ez du musika-tresnen artean. bi lagunek jotzen dute eta bat egite horretatik sortzen den musika ez dagokio ez batari, ez besteari, biak elkar topatu eta elkarriketan aritzeari baizik. nömadak tx bi musikarik izandako desio batetik abiatzen da. txalaparta pertsonen arteko topaleku ez ezik, kultura ezberdinen artekoa ere izatea nahi dute. desio horrek bultzatuta, protagonista biek planetako lekuri ezezagunetara bidaiatu dute bestelako ahots eta soinu bilak. adivasiak-iniako kastagabekuak-, laponiako samiekin, mongoliako estepako biztanleekin eta saharai herriarekin bizi izan dira. enkontru bakoitza paregabea izango da. ezusteko eta esperientzia apartez josia.

eta gainera:

kutsidazu bidea, ixabel. zuz: mireia gabilondo & fernando bernues
agian. zuz: arkaitz basterra
midori. zuz: koldo almandoz

AGIAN



HAUR&GAZTE LITERATURA

SAGU KONTUAK

[txabi arnal gil]



- Aita, ohean gaude guztiok -esan zuten sagutxoek-. Tira, kontaiguzu ipuin bat.

- Bat baino hobe zazpi! -esan zuen Aitak-. Ipuin bana kontatuko dizuet, amaitutakoan lo hartuko duzuela zin egiten badidazue.

- Noski baietz! -esan zuten sagutxoek.

Eta Aita hasi zen...

Hona hemen sagutxo batzuk protagonista dituzten zazpi sagu kontu emateko aitzakia. Zazpi ipuin guztira, esan bezala.

Ipuin harrigarriak dira batzuetan (Gutziaren Putza), metatze ipuinak beste batzuetan (Sagua eta Haizeak), maitagarriak, miresgarriak, jostagarriak eta ederrak beti.

Arnold Lobel-ek zazpi oparitxo hauek erregalatu zizkigunetik hogeita lau urte pasatu diren arren, ez dute jatorrizko freskotasuna eta erakargarritasun izpirik galdu. Irudimen handiak, hizkuntza samurrean zein aberatsean idatzi izanak, komiki gisako irudi adierazgarriak, eta istorioak umeengandik oso gertuak izateak laguntzen diete jatorrizko ezaugarriari eusten.

Sagu kontuak. Klasikoenei helduta batzuetan (Sagu Kankailua eta Sagu Txaparroa), ipuin klasikoenen osagaiekin olgetan beste batzuetan, Oscar Wilde-ren Erraldoi Berekoia burura ekarriz batean (Sagu Agurea), bidaiari ipuinak jorratzen beste batean (Bidaia), ustekabeko amaierak behin eta berriz eskaintzen (Bainua)...

Nahiz eta bilduma honen bukaera errazena izan:


- Esna dagoenik ba al da? -galdetu zuen Aitak. Inork ez zion erantzun. Zazpi sagutxoak zurrunga batean ari ziren.

- Gabon -esan zuen Aitak-. Ondo lo egin. Bihar arte.●

SAGU KONTUAK. Arnold Lobel. Koldo Eizagirrek euskaratuta. Kalandraka, 2000



SARASOLA



ELISEOOO!

CONSTITUCIÓN
ESPAÑOLA

CEGASA ENPRESA-TALDEA

lanean ere EUSKARAZ

Cegasa enpresa-taldeak euskararekiko konpromiso sendoa hartu du. Izan ere, 2004. urtean Euskara Plana ezarri zuen taldeko enpresetan, helburu nagusia enpresa barneko euskararen erabilera suspertzea izaki. Besteak beste, errotulazio guztiak elebidun jarri eta langileentzako euskara-eskolak antolatu dituzte.

[saioa fdz de arangiz]

[arg.: edorta sanz]

2002. urtean jada Euskara Planaren lehenengo urratsak ematen hasi zen Cegasa enpresa-taldea. Bertan historikoki beti egon da euskararen aldeko jarrera. "Oñatitik eratorritako enpresa dugu eta hasiera batean euskaldun asko etorri ziren Gasteiza lan egitera eta giro euskalduna sumatzen zen", azaldu du enpresa-taldeko Euskara Batzorde Orokorraren koordinatzaile Ester Sagastak. Horrez gain, taldeko lehendakaria ere euskara mailan "oso konprometitua" dagoela dio eta beraz, erraza izan zen halako euskararen aldeko plana martxan jartzea.

Gauzak horrela, eta Eusko Jaurlaritzak Euskara Planak abian jartzeko diru-laguntzak bultzatu zituela aprobetxatuz, 2002. urtean enpresa barruan euskararen normalizaziorako lehen urratsak ematen hasi ziren. Hasteko, enpresa-taldeko Euskara Batzorde Orokorra eratu zen eta bertan 9 pertsona inguruk

jarduten dute; hauek guztiak Cegasa taldeko enpresa desberdinetatik datoz. Izan ere, taldeko enpresa bakoitzak ere badu bere Euskara Batzorde propioa.

Euskara Batzorde Orokorraren koordinatzaileak esan bezala, "abian jarritako egitasmoa ez zen planteatu kanpora begira, esaterako, bezeroak lortzeari begirako estrategia gisa edo...", baizik eta enpresako barne giroan euskararen normalizazioa bultzatzeko xede nagusiari begira, "behintzat kalean dagoen mailara iristea", zehazten du Ester Sagasta koordinatzaileak. Ondorioz, Euskara Plana abian jarri zuen Arabako lehenengo enpresa bilakatu zen Cegasa.

EUSKARAREN ERABILERA ETA MOTIBAZIOA, HELBURU

Lehenik eta behin, Euskara Batzordeak enpresaren argazkia egin zuen, hots, euskararen inguruko egoera ikertu zuen eta horren ostean, helburuak zehaztu zituen, egin beharrekoa erabaki nahian.

Horrela, 2004. urtean, egindako azterlan



cegasa enpresa-taldeko euskara batzorde orokorraren kideak

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**



horietan oinarrituta, hasi ziren ekimen guztiak praktikan jartzen, alegia, Euskara Planaren ezarpenari ekin zioten. Horretarako, hiru izan ziren ekintza nagusienak:

Batetik, Gasteizko kaleetan jendeak euskaraz bizitzeko duen aukera enpresa barruan ere egon dadin, errotulazio guztiak eta bertan banatzen diren inprimaki guztiak elebidun jarri ziren. "Errotulazio guztia eta langileek jasotzen dituzten inprimakiak elebidun jarri ditugu, behinik behin, pasiboki euskara jaso dezaten", zehaztu du Euskara Batzordeak.

Bestetik, langileen euskararekiko motibazioa suspertu nahian, euskara eskolak antolatzen hasi da Cegasa. "Iaz

lehenengo aldia izan zen eta oso emaitza ona jaso genuen langileen partetik, jende piloa apuntatu baitzen", diosku Batzordeko koordinatzaileak. 65 langilek izena eman zuten enpresan bertan ematen ziren euskara eskoletan, hain zuzen, Cegasak Gasteizen dituen enpresetan dauden langileen %10. Eskolak urte osokoak izaten dira eta 4 maila desberdinetan daude banatuta; hasi berriak, hasiera azkarra, maila ertaina eta goi-maila. Aurten ere euskara eskolak martxan jarri dira.

Azkenik, hizkuntzaren erabilera bultzatzea ere badute helburu, hortaz, horretarako ekintzak ere abian jartzera doaz, hala nola, 'Nirekin ere euskaraz hitz egin dezakezu'

lelodun txartelak mahai gainean jartzeko aukera zabalduko diete langileei, euren arteko euskarazko komunikazioa erraztu eta bultzatu nahian. Horrez gain, GEU aldizkaria ere langileen artean banatzen da euskarazko irakurketa bultzatzuz. ●

Cegasa zenbakitan

Cegasa enpresak 1934. urtean hasi zuen bere ibilbidea Oñatin, pilak eta etxerako kontsumo-ondasunak ekoizten zituela. Hasiera batean eta 1983 urtera arte egiten zituen pilek 'Tximist' izena zuten. Denboraren poderioz, enpresa-talde garrantzitsua bilakatu da mundu mailan eta 5 kontinenteetako 50 herrialde desberdinetan saltzen ditu bere produktuak.

Egun, 5 dira Cegasa enpresa-taldea osatzen duten enpresak: Cegasa, pila ekoizlea; Cegasa Internacional, produktuak merkaturatzeaz arduratzen dena; Energía Portátil, pila industrialeko ekoizlea, besteak beste; Cega Multidistribución, logistikako operadorea; eta Avenida Digital.

Cegasak Gasteizen dituen enpresetan guztira 650 pertsonak lan egiten dute eta hauen %20 euskalduna da.



LANGILEEN ERANTZUN POSITIBOA

Jadanik bi urte igaro dira plana ezarri zenetik, eta oro har esanda, Cegasa taldeko Euskara Batzordea pozik dago. "Oso erantzun ona eta polita jaso dugu eta egia esan, enpresan jendeak gehiago hitz egiten du euskaraz eta gehiago entzuten da", aitortzen du batzordeko koordinatzaile Ester Sagastak.

Ertokizunari begira, euskararen alde lan egiten jarraituko du batzordeak. "Euskara eskolak sendotu nahi ditugu eta bestetik, jendea euskaraz hitz egiteko gehiago inplikatzeko nahi dugu, batez ere, langileen artean", diosku.

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea • 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2

TFNO.
143883

GASTEIZ

Dalvez

argitarazleak

diseinu grafikoa maketazioa

diaz de olano kalea, 22 tl: 652 77 65 09
fx: 945 24 52 69 info@dalvez.com

Bai Euskarari Zuzentzea
bai
Guk zerbitzuak euskaraz



blue lagoon



vatnajökull

ISLANDIA, ICELAND



Geysir

Vatnajökull

Vatnajökull, Europako glaziar handiena (8.300 km koadro) jasotzen du Ipar Atlantikoko irla honek. Bere izenak dioen bezala, Iceland-en izotza da nagusi, baina ez bertako biosferak lur zati honetan kapritxo emandako elementu bakarra. Naturaren paradoxak sua ezkututzen baitu zoruaren sakontasunean. Glaziar erraldoiaren mihi ezberdinetatik hiru desegiten dira izotz puska handietan Jökulsárlon lakuan. Titanic urperatu zuten horiek itsasorako bidean doaz irudi melankoliko batean.

Geysir

Ezin fidatu, zure oinen azpian lurra irakiten ari da. Islandiak lozorroan dagoen lurraldearen itxura gordetzen badu ere, bere natura erabat bizirik dago. 100 graduko ura egiten du tu zazpi minuturo Strokkur geysirrak. Lur azpitik zerurat suziaren abiaduraz hogeit metroko altuera hartzen du zurrustak. Ostean iragankor den fenomenoaren lurrnak marrazten du paisaia. Bakearen atzerako zenbaketa, laster datorrenaren oihartzuna hasiko baita urrunean entzuten.

Blue Lagoon

Hotza da nagusi Zirkulu Polar Artikoaren mugan kokatua dagoen 103.000 km karratuko lur zati izoztuan. Eguneke argi orduak bikoizten dira udan, eta neguan ordea, gaua da protagonista hutsa. Islandiarrek,

bakartiak irlan, pizsinak dituzte euren elkarren arteko harremanak lantzeko eremu. Tabernaz gozatzeko aukera askotan hiriburura murrizten baita. Irla osatzen duten landetxe isolatu eta herri populazio urrikoek ura dute komunikazio tresna. Berezko natura elementua. Jacuzzi guneetan sartu eta solasaldietan murgiltzen dira. Reykjavik-etik 45 kilometrora, 38 graduko ur beroek lasaitu ezin hobea eskaintzen dute Blue Lagoon-en.

Reykjavik

Sua, ura, lurra eta izotza tartekatzen dira Portugalgo hedadura duen irla baketsu honetan. Ring Road errepide nagusiak (bakarra) lur eremu osoari buelta eman eta gizakion presentzia modu esistentzialan galdetzen diot nire buruari. 300.000 biztanle dituen herrialdean erdia baino gehiago hiriburuan bizi da. Gainontzekoek 300 km-ko tarte asfaltatua dute elkarren artean ikusteko.



Reykjavik

ERREZETA

ORBURLU ENTSALADA, IDIAZABAL GAZTA ETA FOIE BIRLUTekin

[gamarrako ostalaritza eskola]

> OSAGAIAK:

- 12 orburu
- Idiazabal gazta naturala eta ondo lehortua
- Ahate foie micuit-a
- Eskarola
- Baba txiki berria
- Urdaiazpikoa
- Oliba olio lodia
- Txikoria gorria
- Intxaurrek
- Jerez ozpina
- Gatza
- Tipulina



Prestaketa

Orburuen Prestaketa

- Egosi gazitutako ur irakin ugaritan orburuak dauden bezala, hosto bakar bat kendu gabe.
- Gehiegi egosten utzi gabe, ur irakinetatik atera eta ur izoztutan lehenbailehen hozten utzi.
- oberan dituzten orritxoak eta azpiko enbortxoak kendu, eta orburua behar bezala moztu ondoren, hozkailuan gorde plateraren bukaerako prestaketa arte.

Urdaiazpiko ozpin-olioa

- Urdaiazpiko xerra fin pare bat labean erre motel- motel, 140 °Ctan, ordubetez, erabat lehortu eta xigortu arte.
- Birrintu xerra hauek eta oliba oliotan utzi 24 orduz beratzen, eta ondoren iragazi ondoren Jerez ozpin apur batekin nahastu. Ez gehitu gatzik, nahikoa izango du lehendik eta.

Idiazabal gazta errulo karraskatua

- Moztu lau gazta xerra ahalik eta finen, eta sartu labe oso bizian, minutu erdiz, erabat gorritu arte.
- Labetik atera bezain laster, beren bueltan biribildu, eta utzi epeltzen erabiltzeko momentura arte.

Beste prestaketak

- Foie izoztua, xerra fin-finetan moztu ahal dela leku hotzean, eta berriro ere, izozkailuan gorde.
- Babak, ur irakinetan egosi 5 bat minutuz. Ondo xukatuta ondoren, kendu gaineko azala.

Plateraren muntaia

- Aurrez garbitutako eskarola eta txikoria gorri orritxo batzuk, gatz, ozpin eta olio atundu eta plateretan jarri; ondoren hiruna orburu jarri aldamenen, eta hauen gainean idiazabal zilindro bana.

Amaitzeko, atundu entsalada urdaiazpiko ozpin-olioaz, eta apaindu tomaketxo bat, intxaurre txikitua, baba ale batzuk eta tipulinaz.

KONTRASTA, ARANA ETA ELIZMENDI

Hil honen 12an 750urte beteko dira Gaztelako errege Alfontso X-ak Kontrasta hiribildua "sortu" eta forua eman ziola. Urte oparoa 1256a errege honentzat, gauza bera egin baitzuen Agurain, Kanpezu, Korres, Urizaharra eta Gipuzkoako Segura eta Tolosarekin. Hiribildu hauek sortzeak helburu politiko, ekonomiko (merkataritza-bidea indartu itsasoarekin lotuz) eta militar-estrategikoak bilatzen zituen. Gasteizen, bestalde, hiria muinoaren ekialde aldera zabaldu zuen Kutxilleria, Pintoreria eta Juderia kale berriekin.

Hiribildu gehienak aurreko herrixka baten gainean berreraiki ziren inguruko populazioa erakarritik. Inguruko monarkietan ohitura zen bezala izen erromantze berria eman zitzaizen hiri hauei, betiere, monarkiaren hizkuntza ofizialean eta nolabaiteko marketing-a eginez, jendea erakarriko zuen izen ponpoxoa aukeratuz horretarako: Salvatierra, Segura... (leku seguruak), Kontrasta (gotorlekua)... Batzuen kasuan foro-agirian bertan azaltzen dira zeintzuk ziren aurreko herrixken izenak: Gasteiz, Hagurahin ("yo puse nombre Salvatierra, que ante avie nombre Hagurahin...").

Kontrastaren kasuan foru-agiria galdutzat ematen bazen ere, zorionez orain dela gutxi Eider Villanueva ikerlariak Valladoliden topatu zuen ustekabea. Berez, aurkitutakoa 1330 urteko foruaren berrespena da eta bertan, besteak beste, Gasteizko forua ematen zaiola adierazteaz gain, hauxe irakur daiteke: "*yo pus nombre Contrasta que avia nombre Arana*". Espero zitekeen moduan, jatorrizko izen euskalduna hemen ere ordezkaturik ageri zaigu. *Contrasta* latinezko "*contrasto*" aditzetik sortua omen da "aurre egin" edo "oposaketa" esanahiarekin. Izenak dioen bezala, muga zaintzea eta Nafarroari aurre egitea izango zukeen helburu nagusi.

Eta zer dakigu Aranari buruz? Agirietan toponimoaren aipamen bat edo beste dugu, adibidez, 1087 urtean *Gonsalbo Garceiz de Harana*, edo 1138ko dohaintza batean *Aranam*... Baina zer da? Herrixka baten izena, bailararena, edo biak? Beharbada etorkizunean arkeologiak argituko digu kontua, baina gaur egun zaila da galdera hori erantzutea. Zer esan dezakegu?

Bailarari aspalditik izendatzen zaio Arana. Noiztik? Gutxienez XIII. mendetik. Hasiera batean Arabako 4 herriez gain, orain mugakideak diren Larraona, Aranarax (Aranaratxe) eta Eulate herriei osatua zegoen (gogora dezagun 1200 urtera arte denak nafarrak zirela). Azken hiru hauek XV. mendean Arana izena



arabako mendialdean kokatuta dagoen kontrasta herria (harana)



baztertu zuten Goi Ameskoa hartzeko. 7 herri hauek "L" moduko bat osatzen zuten erdigune geografikoa Kontrasta izanik.

Eta zer zegoen Forua eman aurretik Kontrasta-Aranan? Harresiaren barruko hiribilduan ez dakigu zerbait ote zegoen. Baina 100 metrora gaur egun Elizmendi ermita dena garai hartan *Sancta Maria de Elizmendi* monastegia genuen eta, zehazkiago, 1203 urtean *Sancia Pedriz de Uztuñigok* dohaintza-agiri batean Iratxe monastegiari eman zion (bere hiru laurdena) bere lurrak, mahastiak, baratzak, errota, mendiak, larreak eta populazioarekin; agiri berean, *Goto Sanz de Elizmendi*ren lurrak ere ematen ditu; dohaintzaren lekukoaren artean, "*Martinus Capellanus Sancte Marie de Elizmendi*" edota "*totum concilium de Elizmendi*..." irakur daiteke. Hau da, ohikoa zen moduan monastegiaren inguruan egitura ekonomiko eta soziala izango genuen, apaiz eta nekazariz osatutako komunitate edo kontseilua osatuz. Zein harreman eta lotura izan zituen hiribildu berriarekin? Noiz desagertu zen? Hipotesi adina galdera...



elizmendi basiliza

[cristina fernandez blanco]



Gasteiz

adarretatik

HISTORIAZUTABEA

IRUÑAKO EUSKAL IDAZKUNEZ (ETA BI?)

[erlantz urtasun]



Kaixo, irakurle. Ai ene, a zer-nolako kristoa antolatu zen ekainaren hasieran Langraiz aldeko Iruña herriko idazkun, inskripzio batzuk zirela medio. Baietz! Horregatik, zer arraio, honatx doa bigarren gogoeta heterodoxoa. Hirugarrenik ote?

Lehenik eta, zalantzarik gabe, bortz axola nolakoak diren, baina naziogintzari begirat gora Gil, Knörr eta Gorrotxategi! Baita 'Geu' maitagarrian dibulgazio lanik onena argitaratu duen Kike Fernandez de Pinedo ere, berea baita, zer kontxo, ulergarria bezain argigarria den irakurri dudan testu bakarra... Loteria hau jaso ez duten bertze akademikoen enbidiosoei, aldiz, izorrai!

Tartean, berriz ere diot, Arabako Iruña ez zen "la principal ciudad vasca en el siglo III". Eta bai, badakit, turismorako beharrezkoa bada Nafarroa, Lapurdi eta bertze, duela bi mila urte ere, ez dira Euskal Herria eta kitto, baina zientzia bertzelakoa da. Ene ustez, jakina.

Eta, Erlantz tematiak darrai, on Joxemiel Barandiaran, Alfontso Irigoien, Joxemari Satrustegi, Azkue eta bertze "gilipollas" ez zirelaketz. Ezta Iparragirre, Tapia, bertsolaritz, Arana, Agirre, Juan Carlos Perez, Irujo, Iturbe, Ajuriagerra, Elozegi ere.

Abertzaleok, hitz batez, ez baikara harritu Arabako Iruñan agerturikoaz. Betidanik genekien, ez komunikabide pila, zenbait euskaltzain, katedradun edo "politikari abertzale" gehienak bezala... Izan ere, nola kokatu Arabako Iruñakoa "Prozesu" ospetsuan, Marbellan, Alemaniako Mundialean, drogaz beteriko Tourrean edo Rocio Juradoren heredentzian? Benetako Euskal Herriak, berriz ere, erromatarzale ala independentistak, dena hankaz gora jarri du.

Zorionak Araba, bihotz-bihotzetik, eta mesede bat, honelako hurrengo aurkikuntza, duela bi mila urteko euskal testu gehiago, ahal bada, Biasterin izan dadila. Barkatu, Goardian, hau despistea, ez dakit zer nuen nik buruan...

"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHAR?" (VII)

Jarraitu behar, aspaldiko amabix errana. Baita arebak ere, hau da hau. Aurrekoan "Olabezahar" bat utzi genuen jiraka, hainbat kontzientziaren ernatzeko (ernatu ez baita esnatu).

Oraingoan "Olarizu" ezaguna dugu zain. Batzuetan aditu dut lehenagoko "Olarizu" bati zegokiola. Beharbada horrela zen, nork daki, begirada soil batez nahikoa logikoa dirudi, baina, egia erran, jadanik 1025ean "Hollaruizi" moduan dugu, eta azken hau oraindik urutiago geratzen da balizko "Olarizu" hartatik. Enfin, auskalo, XIII. mendean "Hollaruizu" idatzi zutelaketz. Eta, hondarrean, XIX. mendean Iruñeko ikerlari batek honela jaso zuen: "Olharizu".

Nahikoa gauza "bitxiak" gertatzen baitira gurean. Bertze adibide bat gaurko: "Olga". Neska ote? Bon, antza, ez. Toki hori herri basamortu bilakatu zen, eta mendez mende honela agertzen da agiritan: "Olga". Baina, hau bitxiak, duela berrehun bat urte egile batek bertze era baterat kopiatu zuen: "Olaga". Gureak eta bi ikusteko jaiok baikara...

Zer moduz hurrengoan "Ollabarre" edota "Onraita" modukoak kontuan hartzen baditugu? Izan ere, ene irudiko badute zer erran. Azaroan izanen. Agur beroa.

[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]

ezker independentea



EZINBESTEKOA

EZKER

ABERTZALE

BERRI BAT

ERATZEKO




aralar

ezker independentista

www.aralar.net

araba@aralar.net

945 252631



50
URTE

Jakin, GURE
KULTURAREN
ALDIZKARIA

Jakin

haizea dakiten orriak

Harpidetu zaitetz eta oparia jasoko duzu
deitu: 943 218092

Idatzi: jakin@jakingunea.com

Ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro

Oparia: 50 urteotako 202 zenbakiak DVD batean

ZENTRO

BERRIA

ZENTROAN

bai&by

GASTEIZKO ZENTRUAN bai&by ZENTRU BERRI BAT

ADIMENDUN SISTEMA BAKARRA · INGELESA & EUSKARA DIRUZ LAGUNDUAK
ZERBITZU BERRIAK: INTERNET 24 ORDUZ · ON LINE AHOLKULARITZA · TELEFONO-ESKOLAK...

bai&by -ko IKASLEA BAZARA, INFORMA ZAITEZ ZENTRO BERRIAN,

...ETA ORAINDIK EZ BAZARA, ZEREN ZAIN ZAUDE??? 945 15 71 10. K/ ADRIANO VI , 12. GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa